

K...eta Kitto!

2019-IX-13

1111 zkia.

Urpeko Donejakue Bidea osatu dute

Euskararekin
Match!



2019-2020 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 25era arte

- Orduetegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- %20, %50 eta %75eko deskontua

PORTALEA - Bista Eder, 10 943 70 09 12 euskaltegia@eibar.eus

35 urte zuekin!

Eibarko
Udal
Euskaltegia



RESIDENCIAL
Bolingua
ETXADIA



Urbanizazio berria laster Eibarren

ERREKATXU
ONDOAN
(sarbide
berdinetik)

PARKEAREN
ONDOAN

HERRIGUNETIK
2 MINUTUTARA

OINEZKOEN-
TZAKO ETA
IBILGAILUENTZAKO
SARBIDE ONAK

Arnastu berdea Arnastu ikuspegiak Arnastu lasaiago



KUDEATU / MERKATURATU:

FINANTZATU:

SUSTATU:



ISGA INMUEBLES S.A.U.

Informa zaituz.
Hitzordua erreserbatu
residencialbolingua.com
web gunean edo deitu
943 894 433 telefonora.



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Mainer Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Iker Iraolagoitia

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.250 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA)**

eskutitzak

Arrateko Amaren hiru-txirlo txapelketia, bertan behera

Badira 15 urte Asola Berri alkartiak Eibarko Udalarri Arrateko bolatokixan estalpe bat jartzeko eskarixa egin zetsala. Aurten, zoritxarrez, aste osoko lana bertan behera geratu da, eurixaren eragiñez.

Estalpia euki ezker, Arrateko Amaren txapelketiaz aparte, San Isidro egunian, Gipuzkuako txapelketian eta baita Euskal Herrikoan be bolatoki

ofizial modura sartzeko aukeria eukiko zeban. Holan, herrixan gure kirol zaharra bultzatu eta indarberritzeko.

Hiru Txirlo Bola Jokoko buruzagi moduan, udaletxian gai honi buelta batzuk emoteko eskatzen detsuet, aurten gertau dana barriro pasau ez deixan.

Mikel Urkia Zuloaga

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOJONI.- Familia guztiak lapikotik jaten zuenean, baten batek, besteak gelditzeko, ogi zatia lapikora inguratuz esaten zuena. "Ze mojon eta zer arraixo demonio, dogun gosiakin!".

astean esanak

"Emakume zuri, seduktore, baina puta ez den hori; ondo ezkondua, baina inoren itzalean bizi ez dena; lan egiten duena, baina arrakasta handirik gabe, bere gizonaren gainetik ez gailentzeko; mehea dena, baina elikadurarekin neurotikoa izan gabe; gazte dirudiena beti, baina kirurgia estetikoak desitxuratua ez dagoena... emakume zoriontsu hori... Kontua da ez dudala sekula ezagutu, inon ere. Are sinetsita nago ez dela existitzen"

(VIRGINIE DESPENTES, IDAZLEA)

"Nik Donostian dagoen lagun bati esaten badiot Ubedan dagoela baieztatzeko ehun euroren truke eta beste bati gauza bera egiteko, baina euro batengatik, hurrengo egunean bietatik zeinek jokatuko du sutsuago 'egi' horren alde? Hor ezustea, euro bakarra jaso duena izango da. Ehun euroak eraman dituenak onartuko du kopuru horrengatik edozer esateko prest dagoela, aitzakia badu. Baina defenditu ezin dena euro bakarrarengatik egiteko prest azaldu denak ezin du hori babestu diruarengatik eta gai izan daiteke berak pentsatzen duena aldatzeko gezurra esan duela edo nahastu egin zela onartu baino lehen"

(JAVIER URRRA, PSIKOLOGOA)

"Denboraldi honetan *Egunak egin du* programa aurkeztu behar nuen ETB1en eta, azkenean, Kludio Landak aurkeztuko du. Uda guztian pentsatu irailetik aurrera lan bat duzula eta, orain, erori egiten zaizu. Atzo, autoa hartu, Madrilera joan eta casting bat egin nuen. Badakit moldatuko naizela, pailazoa naizelako. Horrez gain, erakundeek Gure Zirkua arte eszeniko gisa ez dute ulertzen, txurria eta barraka gisa baizik. Musika, antzerkia, akrobazia... arte guztiak daude. Baina legeak esan dit feriante bat naizela, aurka borrokatu badut ere. Azkenean, nazkatu eta feriante egin naiz, eurretako bat, eta harro gainera"

(IKER GALARTZA, ANTZEZLEA)

Garapenerako proiektuak partekatu dittue Aldundiak eta Debabarreneko eragilliak

Markel Olano diputatu nagusiak eta Imanol Lasa Sustapen Ekonomiko, Turismo eta Landa Inguruneko diputatuak eskualdeko alkate, enpresa eta ordezkariarekin bilerria egin eben Eibarren eguaztenian, Legealdirako Plangintza Estrategikua osatzeko asmuarekin Foru Aldundiak Gipuzkoako ehun sozial eta ekonomikoko ordezkariarekin egiten diharduen kontaktu errondaren baitan. Azaldukatuaren arabera, hiru helburu nagusi izan zittuen: eskualdiak dakan egoera sozioekonomikua bertatik bertara ezagutzia, eskualdeko udalak eta Debegesa agenzia garatzen diharduen proiektu ekonomikuen barri jasotzia eta Aldundiarekin alkarlanerako aukera barririk aztertzea.



Jaixak beteko dau Arrate atzera be domekan

Aurreko domekan Arrateko Ama Birjiñaren omenezko jaixa egun osuan ospatzen ibilli eta gero, asteburu honetan errepikatzeo aukeria izango da, domekan izango dan Basarritar Jubilau eta Kofradixa Egunaren harira antolatu dittueneri esker. Urtero lez, goizeko 10:30xetan hasiko da Simon Aldazabal XXIV. Antxitiketaldixa, Klub Deportibo paretik urten eta, Orbeko bidetik, Arrateraiño juateko. 11:00-etan, barriz, bertsolarixak lagunduko daben Meza Nagusia ospatuko dabe Arrateko santutegixan eta, ondoren, Arrateko Amaren irudixa atze-



Probalekuko idi-probekin amaittuko da Kofradixa Eguna.

ra be prozesiñuan etarako dabe, Usartza Txistulari Taldekuak lagunduta. Horrekin ba-

tera, 12:00xetan hasiko da Udalak urtero antolatzen daben paella lehiaketia eta, egi-

taraua agurtzeko, 17:30xetatik aurrera idi-probak egingo dira probalekuan, hiru idi-parekin.

Saritutako zenbakixak

Jaixak Herrixak Herrixandakok Arrateko jaixetan saldu zittuan rifen zozketia egin eben jaixaren amaieran eta saritutako zenbakixak hónetxek izan dira: lehen sarixa 1.758 zenbakixari egokitu jako eta bigarren, barriz, 0785 zenbakixari. Saritutako zenbakirik izanez gero, zozketaren antolatzailliekin kontaktuan ipintzia eskatu dabe, sarixa zelan eta noiz jaso zihetzeko.

Ezagutu Ekoizlea ekimena ipiñi dabe martxan bertoko produktueri laguntzeko

DEBEMEN Debabarreneko Landa Garapen Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, Baserrikoa Debabarrena izeneko proiektua dauka martxan. Ekimenarekin jendiak tokiko eta sasoiko produktuak gehixago konsumitzia lortu nahi dabe eta, horren barruan, Ezagutu Ekoizlea izenekua burutzen dihardue, denda txikixekin alkarlanian. Arduradunak azaldu dabenez, "ekintza honen bidez ekoizliak denda txikixetan egongo diranez, bezeruak ekoizle horrek zuzenian ezagutzeko eta ekoizten dittuen produktuak probatzeko aukeria izango dabe. Gaiñera, ekimenak dirauen bittartian, produktuak prezio berezixan erosi ahal izango dira". Gaur Eibarko hainbat dendatan egon da martxan ekimena



eta bixar, barriz, 08:30xetatik 13:30xetara Mugika harategixan (Urkizu, 18) Loixola basarriko Oier Agirrebeña eibartarra egongo da, bere basarrixan ekoiztutako barazkixak eskintzen. Ekimenaren inguruko informaziño guztia www.baserrikoa.eus web orri-xan ikusi leike.



autuan

EIBARKO ARMAK BADAJOZEN

Eibarko Armagiñen Alkarteko ordezkariak Badajozen dagoz, atzoz geroztik eta domekara arte IFEBAn martxan egongo dan Feciex, Ehiza, Arrantza eta Natura Iberikuaren azokan parte hartzen. "Asociacion Armera. La Armeria del siglo XXI" erakusketarako alkarteko kidiak laga dittuen piezekin batera, Eibarko Armagintzaren Museuak lagatako beste 13 pieza eruan dittue Eibartik.

1954-AN JAIKOTAKUAK

Urte horretan jaiotakuak urriaren 5ian ospatuko dabe euren jaixa: 13:00etan Untzagan alkartuko dira eta, zapixak banatu eta gero, talde-argazkixa egingo dabe. Ondoren Ongi Etorri tabernan luntxa eukiko dabe eta bazkarixa 14:30xetan hasiko da, Unzaga Plaza hotelian. Bazkalostia girotzen DJ batek jardungo dau eta, arratsaldian zeozer edan eta gero, Arkupe tabernan agurtuko dabe eguna, 21:30xetan zeozer janda. Izena emoteko 85 euro sartu bihar dira Laboral Kutxako ES923 035 0023900231158365 kontuan, izen-abizenak argi azalduta. Azken eguna irailaren 30a izango da.

Hurrengo asteburuan ospatuko dittue jaixak Legarren

Legarreko Jai Batzordiak dana prest dake hurrengo asteburuan auzoko jaixak ospatzeko. Iraillaren 20xan (barixakuan) ekingo detse programari, 19:00etan Tartetik hasiko dan kalejirarekin. Ordu erdi geruago, 19:30xetan, famelixa eta umiendako pentsauta dagan "Legarre Raid" jolasa hasiko da. Arrakasta haundixa izaten daben patata tortilla txapelketia 20:00etan izango da eta 21:00etan, barriz, umiendako makarronada antolatu dabe. Afarixa zein afalostia girotzeko, bestalde, Kaxa alkartiaren eskutik gaztiendako mugimendu eta sormena egongo da eta, jaietako lehen eguna agurtzeko, 23:00etatik aurrera kontzertua emongo dabe "Black Sapatu" (Black Sabbath) taldekuak.

Eta hurrengo egunerako (zapaturako) antolatu dittuen jarduerak eguardixan hasiko dira: kalejira, txosnan hasitta (12:00); pintxo-potea Tarten (12:30); Legarreko IV. Kronoeskillararen hasieria (13:00); pintxo-potea txosnan (13:30); graffiti erakustal-



Antxo eta Pantxa paillazuak aurtengo jaietan izango dira, zapatu arratsaldian.

dixa (13:30); krono eskillararen sari bana- ketia (14:25); bazkarixa (14:30); umiendako ikuskizuna Antxo eta Pantxarekin (16:00); musika saiua, DJ Arnorekin (17:00); txokolatadia (18:00); erromerixia, MP5 taldiarekin (20:00); eta, amaitzeko, Puro Chile eta A Tuti Plain taldien kontzertua, 22:30xetatik aurrera.

UD
AZ
KE
NA



Euskara Elkartea

Urkizu pasealekua 11, solairuartera
 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 20 09 18
 elkartea@etakitto.eus
 www.etakitto.eus

I R A I L A

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

A Z A R O A

				1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

U R R I A

							1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13						
14	15	16	17	18	19	20						
21	22	23	24	25	26	27						
28	29	30	31									

A B E N D U A

												1
2	3	4	5	6	7	8						
9	10	11	12	13	14	15						
16	17	18	19	20	21	22						
23	24	25	26	27	28	29						
30	31											



Barixakuero
 ...eta kitto! astekaria
 Hilero Txikitto!
 umeen aldizkaria
 Astero Berbetan
 mintzapraktika
 taldeak
 Itzulpenak
 eta diseinu-lanak

2019ko iraila-abendua
kultur eskaintza



IDURRE IRIONDO

Herritarren babesa lortzeko kanpaina abiatu dau Eibarko ama batek

Diagnostiko bariko gaixotasunak eragindakuen alkartia (AFESD) sortu eban Estibaliz Blanco eibartarrak internet eta sare sozialen bittartez kanpaina abiatu dau, biharrian dakan arazo baten barri emon eta herritarren babesa lortzeko asmuarekin. Berak diñanez, "Ibai nere semiak %89ko desgaitasuna daka eta, horregaittik, bera zaindu ahal izateko, lanaldi-murizketia eskatu dot nere biharrian. Baiña nere eskubidia dan hori betearaztia Fraternidad-Mutrespa mutuaren esku dago eta uko egin detsa nere eskaerari eta horretarako emon daben arrazoiak ez daka ez hankarik ez bururik: nere se-

nia Aspace hezkuntza berezirako ikas-tetxera joaten denez, mutuaren arabera horrekin nahikoa dauka eta ez daka zaintza gehixagoren premiñarik, eta horren aitzakixarekin ez deste lanaldixa murriztuko". Horren aurrian, gertatu jakonaren inguruko galderia egin detsa Eusko Legebiltzarrari, herritarren galdereri erantzuteko asmuarekin interneten martxan daken Osoigo web orri-xan. Halanda be, politikuak galderari erantzuteko, gitxienez 500 lagunen babesa lortu bihar dau galderiak eta, horregaittik, ama honek aittatutako orri-xan sartu eta bere galdera babesteko eskatu nahi detsa jendiari.



Ibai semia zaintzeko lanaldixa murriztia eskatu dau amak, baiña mutuak uko egin detsa.

IRAILA

Irailak 20, barixakua
 Berbetan jaialdia. Eibarko Bizikleta plazan 17:00etatik aurrera: puzgarriak, eskulan-tailerrak eta Arima Diskofesta.

Irailak 24, martitzena
 Harixa Emoten literatur tertulia: Miren Amurizaren "Basa" liburua. 19:00etan Portalean.

Irailak 24, martitzena
 Berbetan jaia Urkin (Cepa parean) 17:00-18:30. Jolasak eta txokolatada.

Irailak 25, eguaztena
 Berbetan jaia Ipuruan (Ipur aurrean) 17:00-18:30. Jolasak eta txokolatada.

Irailak 27, barixakua
 Berbetan jaia Urkizun 17:00-18:30. Umeentzat jolasak eta txokolatada.

URRIA

Urriak 7 - Azaroak 4
 XXV. San Andres Bertso Paper lehiaketako lanak entregatzeko epea.

Urriak 5, zapatua
 XXVI. Sagardo Eguna. 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik amaitu arte. 13 sagardotegi.

Urriak 18, barixakua
 Barixakuak Jolasian Gurasoak Berbetan programako kideentzat tailerra. 17:00etan ...eta kitto!-n.

Urriak 26, zapatua
 Peru Harrira irteera, Gurasoak Berbetan eta Ongi Etorri programakoentzat.

Urriak 29, martitzena
 Gazta-dastaketa Idiazabal Kofradiaren eskutiak, ...eta kitto!-n.

AZAROA

Azaroak 5, martitzena
 Harixa Emoten literatur tertulia: Nerea Baldaren "Atzerrian" liburua. 19:00etan Portalean.

Azaroak 10, domeka
 Bizilagunak bazkaria. Informazioa ongietorri@etakitto.eus

Azaroak 15, barixakua
 Barixakuak Jolasian Gurasoak Berbetan programako kideentzat tailerra. 17:00etan ...eta kitto!-n.

Azaroak 16 eta 17, zapatu eta domeka
 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria. Unibertsitate Laboralean.

Azaroak 19, martitzena
 "Sarean kateatuak" antzezlanaren Nomofobikak taldearen eskutiak (Olatz Beobide, Belen Cruz eta Amaia Lizarralde). Portaleko areto nagusian 19:00etan.



Azaroak 24, domeka
 San Andres Bertso Jaialdia. 19:00etan Portalean.

Azaroak 26, martitzena
 Munduko Janarien Tailerra (Berbetan eta Ongi Etorri programakoentzat). Portaleko sukaldean.

ABENDUA

Abenduak 3, martitzena
 Euskeraren Eguna.

Abenduak 3, martitzena
 Harixa Emoten literatur tertulia: Harkaitz Canoren "Fakirren ahotsa" liburua.

Abenduak 13, barixakua
 Barixakuak Jolasian Gurasoak Berbetan programako kideentzat tailerra. 17:00etan ...eta kitto!-n.

Abenduak 17, martitzena
 Larrua lantzen ikasteko tailerra. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Abenduak 31, martitzena
 Kirolkitto! kirol-sari banaketa ekitaldia. 12:00etan Coliseoan.

Armerixan TIG Soldadura ikasteko eskaerak 20ra arte egin leikez

Iraillaren 30ian ipiñiko dabe martxan Armerixa Eskolan titulatuena %50 kontratatze konpromisua dakan TIG Soldadura ikastarua. Zihetzago esateko, eskinduko dabena Lanbideren prestakuntza katalogoko MF0100_2 Arku-soldadura Gas Babeslia eta Elektrodo Ez-kontsumigarriak (TIG) prestakuntzako modulua izango da. Langabetuak kurtsua egiteko lehenetasuna izango badabe be, bihargiñak be egiteko aukeria izango dabela azaldu dabe. Ikastarua 370 orduko iraupena izango dau eta egiten dabenak 80 ordu emongo dittu enpresaren ba-

tian praktikak egitten. Klasiak 08:00etatik 14:45tara bittartian izango dira eta, ikastetxetik azpimarratu dabenez, "Fagor Industrial eta Ulma Packaging enpresak ikastarua gainditzen daben ikaslien erdixa kontratatze konpromisua dake". Kontratuak gixtienez sei hillebeterako izango dira, lanaldi osorako.

Parte hartu ahal izateko DBHko titulua edo baliokidia izatia eta planuak interpretatzen jakitzia eskatzen dabe. Izena emoteko epia zabalik dago (irailaren 20ra arte) eta eskaerak <http://ikastaroak.armeriaeskola.com> helbidian egin bihar-



Parte hartzeko DBHko titulua edo baliokidia izatia biharrezkua da.

ko dira. Eskaerarekin batera, lan-bizitza jasotzen daben agiri-xa, curriculum eta egindako ikasketen tituluen fotokopixa konpulsatua (Armerixan bertan konpulsau leikez, originalak erakutsita) aurkeztu biharko di-

ra Armerixa Eskolan (Att: Enplegurako prestakuntza), zuzenian hara eruanda edo posta ziurtagiri bat bialduta. Hautatzen dittuenak irailaren 25ian Armerixan egingo daben sarre-frogarako deittuko dittue.

Arrate izenekuak domekan ospatuko dabe euren jaixa

Aurten be Arrate izenekuak euren jaixa ospatuko dabe, asmo horrekin preparau daben programari jarraituta. Oinguan, gaiñera, 23. ediziñua beteko daben jaixak bat egingo dau Basarritar Jubilau eta Kofradixa Egunarekin, bixak domekan ospatuko dira eta. Goizetik ekingo detse egunari Arrate izenekuak, 09:30xetan Untzagan alkartuta. Animatzen diran guztiak handik Azittain aldera abiatuko dira, Arratera Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik oiñez igotzeko. Eta danak Arraten bat egin eta gero, mezia, bazkarixa, jolasak eta dantzaldixak osatuko dabe egunerako plana, bestiak beste.



23. ediziñua ospatuko dabe aurten Arrate izenekuak domekan.



Arragueta kaleko 11. eta 13. zenbakixak aurri-egoeran deklaratzia erabagi dabe

Martitzenian egindako Hirigintza Bartzordian erabagi eben Arragueta kaleko 11. eta 13. zenbakixak hondamendi egoeran deklaratzeko espedientiak martxan ipintzia, Udal arkitektuak egindako txostenak aittatutako pegora bixak aurri-egoeran daguazela jasotzen dabela ikusi eta gero. Behin espedientieri (eraikin bakoetxeko bana) hasieria emon eta jarraixan, Udalak hórretxen barri emon biharko detse jabieri, legiak holakuetarako

emoten daben epiaren barruan, nahi izanez gero alegaziñuak egiteko aukeria izan deixen. Iñork ez badau alegaziñorik egitten, edo jarritta be ebazpenak aldekuak badira, Udalak aurri-egoeria deklarauko dau eta jabieri etxiak eraisteko aginduko detse. Udaletik azaldu dabenez, espedientiak ahalik eta bizkorren tramitau nahi dittue, "etxiak egoera penagarrixan daguazelako eta lehenbailehen esku-hartzia bihar dabelako".

Afrikara begira

Europarazi da Oraçao Sambu eta esker oneko berbak berak ez ditu hemen jasotakoak. Errugbian hain beharrezkoa den solidartatea barrenean darama, gurasoen berbetatik ezagutzen duen jaioterria bezala.

Herrialde bi, herri bakarra


Oraçao Sambu Angola eta Kongoko Errepublikak Demokratikoren artean jaio zen. *"Herrialde bi dira, baina herri bera osatzen dugu. Angolar-kongolartzat dut neure burua"*. Kongoko aitaren eta Angolako amaren alaba, urte birekin utzi zuen jaioterria. *"Aitak negozioak zituen Angolan, baina Angolan eta Kongon gerra giroa zegoen eta edozein momentutan dena galdu genezakeen. Beraz, gurasoek alde egitea erabaki zuten"*. Frantziara joatea zen euren helburua, baina Madrilera amaitu zuten bidea. *"Madrilera iritsi eta hurrengo egunean nire neba eta ahizpa jaio ziren, eta asiloa eskatu behar izan genuen"*. Madriletik Torrelavegara joan ziren eta handik Santanderrera. *"Han pasa dut nire bizitzaren zati handiena, orain dela bost urte Eibarrera etorri arte"*.

Kongora itzultzeko prestatzen

Urte birekin utzi zuen bere jaioterria eta inoiz ez da itzuli, baina bihotzean darama. Gurasoek igorri dioten sentimendua gehiago elikatu du azken urteotan eta Kongoko egoera hobetzeko lan egiteko asmoa du. *"Zientzia Politikoa ikasten hasi naiz, hara itzuli naizela dakidalako eta hemen ikasitakoa nire jaioterriari eskaini nahi diodalako"*. Oraçaoak arreta handiz jarraitzen du Kongoko errealitatea eta diasporako hainbat talderekin kontaktua du, baina egunotan zuzenean iristen zaizkio mezuak Afrikatik. *"Aita Kongon dago orain, aspaldi joan gabe egon delako. Presidente berria dugu eta, antza denez, ona da"*. Oraçaoak Kongora joateko gogo handia du eta, ondo bidean, datorren urtean hara joango da. *"Ziur naiz joango naizela, ez bisitan bakarrik, baita bizitzera ere. Aitak beti esan digu gure tokia han dagoela"*.

Ohiturak errespetatuz

Ia bizitza osoa Europarazi bizi izan badu ere, Afrikako sua beti egon da piztuta Oraçaoaren etxean. *"Hizkuntzari dago-*



Angola eta Kongon du jatorria Oraçao. Ekhi Belar

kionez etxean nahasketa bat egiten dugu lingala (Angola eta Kongoko hizkuntzetako bat), kikongoa (aitak bakarrik erabiltzen duena, Angola eta Kongoko beste hizkuntza bat) eta frantsesaren artean". Bere jaioterriko janaria ez zaio gehiegi gustatzen, baina gurasoek prestatu egiten dute. *"Jaki afrikar asko egiten dituzte"*. Hori bai, kristauak diren heinean, errezatu egiten dute bazkaldu aurretik.

Errugbiko familia

Lagun minei 'lehengusu' edo 'lehengusina' deitzeko ohitura dutela dio Oraçaoak. *"Ez diegu euren izenarengatik deitzen"*. Familia bezalakoak diren lagunak, ordea, Eibar Rugby Taldean aurkitu ditu. *"Jatorri eta kultura ezberdinetako jendea dago taldean eta hori zoragarria da niretzat"*. Eibarren ezagutu zuen errugbia eta hasieran amak ez zuen oso begi onez ikusten. *"Lehen dantza eta gimnasia erritmikoa egiten nuen, pentsa"*. Orain, ordea, gurasoak partiduetara joaten dira ahal duten heinean. Izan ere, Oraçaoari asko gustatzen zaio errugbia. *"Nahiko basatia naiz"*.

**"Bana Congo to
simbana maboko,
Congo elonga"**

**"Kongoko seme-alabak,
elkarri eskutik heldu
Kongok aurrera
egin dezan"**

Azken urteotan egindakoaren bidetik, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du Udalak beste behin eta, horren harira, "Oinez eta Bizikletaz segurtasunez ibiltzea" kanpainaren aurtengo goiburuari jarraituz, Udaleko Ingurumen Sailak hainbat jarduera antolatu ditu irailaren 16tik 21era bitartean.

Astelehenean hasiko da Mugikortasunaren Europako Astearen inguruko egitaraua

Prestatu duten egitaraua **astelehenean** hasiko da, Udal Kirol Patronatuak antolatu duen "Nordic Walking Bataioa" izeneko ikastaroarekin. Parte hartze-
ra animatzen direnek geroz eta jarraitzaile gehiago dituen kirol-diziplina bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute, Unben izango den ordu eta erdiko saioan. Bi ordu-tegi daude aukeran: 10:00etatik 11:30era eta 18:00etatik 19:30era eta, astelehenean ez ezik, eguaztenean bigarren saio bat egingo dute, toki eta ordu berean. Ikastaroan parte hartzeko ezinbestekoa izango da aurretik izena ematea, lpurua kiroldegian (gaur da azken eguna) eta taldea osatzeko gutxienez sei lagun eta 15 gehien jota elkartzea eskatzen dute arduradunek.

Martitzenean, berriz, "Islas para viajar en bici" izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute Portaleko areto nagusian, 18:30ean. Ordubeteko iraupena izango duen saioa gazteleraz izango da eta ber-

tan familia batek munduko bost kontinenteetako irletan zehar (Islandia, Singapur, Kuba, Zeelanda Berria, Gore, Ko Phi Phi Don, Galapagos uharteak...) bizikletaz egindako bidaiak erakutsiko dituzte.

Eta **egunean**, 10:00etan "Mugikortasun Jasangarriaren Martxa" abiatuko da Uni Eibar Ermua BHI-tik, mugikortasun iraunkorragoa eta osasuntsuagoa aldarrikatzeko asmoz. Ehunka ikasle eta irakasleren parte-hartzea izango duen martxak Eibarko kaleak zeharkatuko ditu, Untzagan amaitu aurretik.

Bizikletak protagonista

Aipatutakoekin batera, datorren **barixaku** arratsaldean, 16:30etik 19:30era bitartean umeentzat bereziki pentsatutako hainbat jarduera egingo dira Untzagan: bi urtetik aurrerako haurrek Molto bizikletentzat prestatutako duten zirkuitoan euren trebetasuna erakusteko aukera izango dute

eta 4 urtetik 12 urtera bitartekoek ere horretarako aukera izango dute, baina kartsentzat prestatutako beste zirkuito batean. Gainera, lau urtetik gorakoentzat eskulan-tailerrak antolatu dituzte: parte hartzen dutenek bizikleta piezak erabilita giltzatakokoak eta zakutoak egingo dituzte eta mugikortasun jasangarriaren inguruko marrazkiak egiteko aukera ere egongo da. Barixakuan bertan, baina 18:00etan hasita, Untzagatik "Nordic Walking Martxa" abiatuko da. Parte hartzen dutenek 4 kilometroko ibilbidea egingo dute, "Eibar Ibili" zirkuitu gorritik, herriko bide osasuntsuen sarearen barruan dagoen "Eibar Ibili" zirkuitu gorriari jarraituta. Egunean bertan eman daiteke izena, 17:00etatik 17:45era Untzagan eta parte-hartzaileei kamiseta bana oparituko diete.

Eta, egitaraua biribiltzeko, irailaren 21ean (**zapatua**) bigarren eskuko bizikleten eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako objektuen salerosketa-azoka egingo da Untzagan, 10:00etatik 14:00etara. Nahi duenak izango du parte hartzeko aukera, saldu nahi dituen bizikleta zein bestelako gauzak (patinak, patineteak...) azoka hasi baino lehen (08:30etik 10:00etara) Untzagara eramanda. Eta, horrekin batera, goiz osoan zehar bizikletak konpontzeko doako tailerra egongo da martxan, Untzagan bertan. Informazio gehiago nahi izanez gero 943670249 telefono zenbakira deitu daiteke. Eta zapatu hori autorik gabeko eguna izango denez, Udalbusa dohainik izango da. Bestalde, eta antolatzaileek adierazi dutenez, Eibarko Txirrindularien Elkarteak urtero antolatzen duen Pedalaren Eguna aurrerago, urrian izango da oraingoan.



Nordic Walking kirol-diziplinak gero eta jarraitzaile gehiago ditu gure artean.

Datorren astean aurkeztuko da Berbetan programaren aurtengo ikasturtea

Giro natural eta informalean euskera praktikatzen dute berbalagun-taldeek

Irailaren 18an, eguaztenean, emango ditu ezagutzera ...eta kitto! Euskara Elkartek Berbetan eta Ongi Etorri programen aurtengo nondik norakoak. Arratsaldeko 19:00etan izango da aurkezpena Portaleko areto nagusian.

Ekitaldian edonork har dezake parte, irekia izango da-eta. Euskera praktikatze gogoz edo premia dagoenak, premia hori dutenei laguntzeko prest dagoen euskaldunak eta kultura eta jatorri ezberdinetako jendearekin elkartu nahi duenak eguazteneko ekitaldian jasoko ditu azalpen guztiak.

Euskera praktikatze taldeak astean behin

Astelehene ostiralera eta goiz eta arratsalde. Ordutegi aldetik, behintzat, aitzakiarik ez da euskera praktikatze taldeetan izena emateko. Talde txikiak dira, bost-sei kidekoak, eta taberna batean elkartzen dira ordubetez, giro lasai eta informalean euskeraz berba egiteko. Elkarrizketak ere arinak izaten dira, lagunartekoak modukoak: asteburuan zer egin duten, irakurri duten azkeneko liburua, seme-alabak zer moduz... Azken finean, helburua, euskeraz berba egiteko erraztasuna lortzea da, baina era naturalean.

Gurasoentzat programa espezifiko

Urteroko erronka izaten da gurasoak mintzapraktikako programara hurbiltaraztea. Familia bidezko transmisioarekin arduratuta, ...eta kitto! Euskara Elkartek ahalegin berezia egin nahi izaten du familiek programan parte hartzeko eta horretarako ekintza ugari antolatzen dira urte osoan, guraso eta seme-alabentzat: eskulan-tailerrak hilean behin, antzerkia, irteerak, sukaldaritza-ikastaroak, Santa Agedako kalejira... Gurasoak talde naturaletan izena ematera animatzen ditu ...eta kitto!-k, hain zuzen, lehendik eginda dauden taldeetan: kuadrilla, eskolako guraso-taldea... Eta konpromiso txikiekin hastea, adibidez, umeei merienda ematerakoan euskeraz egingo dugu, edo kafea euskeraz hartuko dugu...

Elkarbizitza bultzatzeko Ongi Etorri

Jatorri ezberdinetako bizilagunak euskerara eta euskal kulturara hurbiltzeko eta elkar ezagutzeko helburuarekin jaio zen Ongi Etorri programa. Auzoetan elkartzen dira taldeak (Urkizu, Amaña eta Urkin), astean behin, ordu eta erdiz. Giro informalean elkar ezagutzea eta kultur aniztasuna sustatzea da egitasmoaren helburua. Horrez gain, ekin-tzetako asko berbalagunekin batera egiten dituzte. Munduko Janarien Tailerrak, adibidez, arrakasta handia izaten du, eta aurten ere lau-bost saio egingo dira.



AUZOAK ERE EUSKAL GIROAN MURGILDUKO DIRA

Irailaren 20an puzgarriak, eskulan-tailerrak eta Arima Diskofesta jaia egongo dira **Eibarko Bizikleta plazan**, eta iraileko azkeneko astean, jolasak eta txokolatada herriko hainbat auzotan.



Urteroko ohiturari jarraituz kalean aurkeztuko du ...**eta kitto!** Euskara Elkartek Berbetan programaren ikasturte berria. Irailaren 20an, barixakua, arratsaldeko 17:00etan hasiko da jaia, baina aurtun, Untzagan egin beharrean, Eibarko Bizikleta plazan egingo da. Ordu horretan jarriko dira martxan **eskulan-tailerrak eta puzgarriak**, 18:30ak arte, eta ordu horretatik aurrera dantza egin eta ondo pasatzeko aukera paregabea eskainiko dugu **Arima Diskofestak**. DJ eta animatzaile baten laguntzarekin koreografiak, jolasak eta sasoi ezberdinetako abestiekin primeran pasatuko dute haur zein helduek.



Barixakukoa izango da LAU JAIALDIetatik lehenengoa; iraileko azkeneko astean auzoetara egingo du jauzi Berbetanek, antolatzaileek esan duten moduan: "Irailaren 24an, martitzena, Urkin egongo gara, Ceba taberna parean, 25ean, eguena, Ipuruan, Ipur taberna kanpoan eta 27an, barixakua, Urkizuko parkean". 17:30ean hasita umeentzako jolasak eta txokolatada egongo dira.

Irailaren 20an
Eibarko Bizikleta Plazan
17:00etan

Irailaren 24an
URKIKO
Ceba tabernaren parean
17:30ean

Irailaren 25ean
IPURUAKO
Ipur taberna kanpoan
17:30ean

Irailaren 27an
URKIZUKO
parkean
17:30ean



Astelehenean hasiko da 11/13 makroepaiketa Audientzia Nazionalean. Euskal presoeng inguruko abokatu eta elkarteek aurkako epaiketa izango da eta denera 601 urteko espetxe eskaera egin du Fiskaltzak. Ainhoa Baglietto abokatu eibartarra epaituen artean izango da. Epaiketa beretzat ohikoa ez den tokitik biziko du eta Auzitegi Nazionalean dena posible dela onartzen du. Momentuz bihar 17:30ean Bilbon egingo den manifestazio nazionalen jasotako babesarekin maleta betetzen saiatuko da.

AINHOA BAGLIETTO (abokatu):

“Torturak eta preso eta iheslarien eskubide urraketak salatu izana ordaintzen dugu”

- Zer moduz sentitzen zara astelehenean hasiko den epaiketaren aurrean?

Oraindik sinestu ezinda nago. Orain dela pare bat egun epaiketa hasteko desiratzen negoen, urduritasunarengatik edo. Oso gogorra izango da.

- Zer egozten dizuzte?

Formalki, ETako partaideak izatea. Honek logika bat du. 1998. urte inguruan ‘dena ETA da’ baieztapena sortu zen eta horren harira sortutako dinamika berrak bukaera da gure epaiketa, ETak behin-betiko armak uztea erabakitzen duen unearrekin bat egiten duelako. Zergatik atxilotu gintuzten? Nik logika bakarrik aurkitzen diot horri: ETak armak bertan behera uztea erabaki zuen eta estatuak bakarrik zeudela sentiarazi nahi izan zuten presoek, presoeng artean bakardade sentazioa zabaltzea. Hau da, hainbeste urteko borroka zentzurik ez zuela eta bakarrik gelditzen zirela. Horretarako euren abokatuak, laguntza ematen zieten

medikuak, kalean demanda sozial bat existitzen zen garai batean dena konpontzeko pausok eman nahi zituen jendea (Herrira)... atxilotu zituzten eta logika horri erantzuten dio 47 lagun atxilotzeak eta orain epaiketa baten aurrean egoteak.

- Abokatuaren kasuan, adibidez, zuen jardueraren profesionalitatearen egiteagatik epaitzen zaituztete. Nola da posible?

Gure lanbidearen bitartez torturak eta preso eta iheslarien eskubide urraketak salatu izana ordaintzen dugu. Beti egon gara euren ikusmiran, baina sasoi horretan presoak bakarrik uztea zen asmoa. Abokatu guztiak atxilotu zituzten, presoek inolako asistentzia juridikorik izan ez zezaten. Bakarrik egotea eta azkeneko damu indartsu bat bilatzea nahi zuten. Ez du inolako zentzurik 47 profesional atxilotzeak, denak ETakoak garela egotzita, justu ETak armak utzi dituen sasoiaren. Zertan lagundu diegu ETakoei? Armak uzten? Hori delitua da?



- Zuen defentsa nolako izango da? 47ek defentsa bateratua egingo duzue?

Eurek kolektibotasun batean planteatu dute auzia eta guk aldarrikatu dugu ez duela zentzurik ETako partaideak garela egotea justu ETak armak utzi dituen sasoiaren. Are gehiago, ez dago inolako froga indibidualik eta eskatzen diguten egintzetan ez dago indibidualtasunik. Prentsaurrekoak ematea, presoak defendatzea... egozten digute eta guk horren zilegitasuna aldarrikatu eta defendatuko dugu.

- Nola egiten diozue aurre neurri horretako prozesu juridikal bati? Kostu ekonomikoak, urte hauetako itxaronaldia, eskubide urraketak...

Ni beste aldean egon izan naiz beti, abokatu lanetan, eta nire defendituei beti esan diet oso garbi eduki behar dutela Auzitegi Nazionalean dena dela posible. Altsasukoak kondenatu zituztela ikustean jabetu ahal gara noraino iritsi ahal diren. Esango nuke nik eraman ditu-

dan kasuetatik bi, hiru edo lau-tan bakarrik lortu dituztela benetako frogak, hau da, torturapean ez lortutakoak. Gaur egun atxilotua doan inor ez doa inkomunikatua eta inork ez du bere burua erruduntzat jotzen. Zergatik? Beste sasoi batean gertatzen zelako eta inkomunikazioak sistematikokoak zirelako. Guk nola egiten diogun aurre epaiketari? Arazo handiekin. Abokatu izan naizen heinean prozedura irakurri eta errugabetasuna besterik ez dut ikusten, eta ez dut sinesten kondenatuko gaituztenik, baina badakit kondenatuko gaituztela. Hori gaizki eramaten da, ez delako posible 47ak libratzea. Auzitegi Nazionalaren aurrean nago eta ezin dut hori burutik kendu, ezin dut Altsasukoak burutik kendu. Beraz, ezin naiz joan absolbitua izango naizela pentsatuz. Froga bakarrik Guardia Zibilaren eskuetan dago eta horrekin dena esaten dut. Guardia Zibila eta Auzitegi Nazionala, bi elementu horiekin ez daukat ezer egiterik.

- Zein mezu zabalduko zenio-ke gizarteari?

Hau dena konpondu egin behar dela aldarrikatzen jarraitu dezala eskatu behar diogu jendeari. Bere garaian guk salatzaren genuenak eta jendeak aldarrikatzen zuenak konponbidean jarraitu dezala. Horretarako pausoak eman ziren eta horrelako gauzak ez gertatzeko hau konpondu behar da.

- Herritarren babesa jaso duzue azken asteotan eta bihar manifestazio nazionala egingo da Bilbon zuei elkartasuna erakusteko. Nolako garrantzia du gizartearen babesak horrelako kasuetan?

Hau guztia jende asko gertatzen ari zenaz konturatu ez delako geratu da hein handi batean. Ez dut uste jendea horren erruduna denik, baina bai esango nuke urteetan komunikabideek ez dutela esan zer gertatzen ari zen. Orain mundu guztiak eskuak burura eraman ditu

“Gure atxilotekin estatuak bakarrik zeudela sentiarazi nahi izan zien presoiei”

Altsasun gertatutakoa ikusita, baina hau urteetan gertatu den gauza da. Nola da posible Auzitegi Nazionaletik pasa diren guztiak bere burua erruduntzat jotzea? Urteetan gertatu den logika da, eta atxilotuak inkomunikatuak izaten zirelako eta torturak existitzen zirelako gertatu da. Hori ez da publikoki eta komunikabideetan atera, eta jendea orain hasi da hori ikusten. Horregatik onartu eta gertatu da hau guztia, jendea ez delako konturatu eta ez delako benetan kalera atera zera esatera: “ez nago egoera honen alde, baina ezta honen alde ere”. Kontaketa sortu egin behar da eta kontaketa zati bat existitu da, baina beste zatia ez eta horren jabe egin behar gara hau dena eraiki eta konpondu nahi badugu.

- Estrasburgok Espainia zigortu izan du tortura salaketak ez ikertzeagatik. Zerbaitearako balio izaten du horrek?

Gertatu den guztirako oso gutxi balio izan dute Estrasburgoko zigorrek. 10-15 sententzia eduki ditugu esanez tortura existitu dela, baina zenbat kasu existitu dira benetan? Pila bat. Konturatzen gara kotxe bat erretzeagatik 40 urteko espe-

txealdia betetzen diharduen jendea dagoela? Eta bestalde, hainbeste heriotza, desjabetze eta lapurreta posible egin duten hainbat eta hainbat jende kalean egotea? Edo heriotza eragin duten GALEko kideak urtebetean kalean egotea? Konturatzen gara nolako desberdintasuna dagoen? Europako auzitegiak egin duenak begiak ireki dizkio jende bati, baina ez gertatu den guztiaz.

- Preso eta iheslarien inguruan mugarrria ezarri dezake zuen epaiketak?

Istorio honetan eragina izatea gustatuko litzaidake, pertsona horiei gertatzen zitzaizkien eskubide urraketak salatzaren egin baitut lan. Salaketa horiek eta konponbidearen aldeko aldarrikapena eteteko atxilotu gintuzten. Gainera, jasotzen ari garen babesak eta mobilizazioak jarraipena izan dezala gustatuko litzaidake. Konpondu behar dena ez delako gure auzia, autore eta egileen aurka sortu zen legedi berezi hori baizik. Estatu Espainolean ez dago zigor-kode orokor bat delitua orokortasun baten barruan epaitzeko, delitua egiten duenaren arabera zigorkodea dago eta hori ez da onar-

“Prozedura irakurrita errugabetasuna besterik ez dut ikusten, baina badakit kondenatuko gaituztela”

garria European, hori faxismoak egiten du bakarrik.

- Epaiketa hau beste puntu beltz bat da Espainiako justiziaren irudian?

Bai, epaiketa hau eta oraindik gertatzen diharduten beste hainbat epaiketa. Presoek eman dituzten pausoei baldintzapeko askatasunak, hirugarren graduak eta horrelako egoerak ez lortzea. Beste edozein presoren kasuan hain arruntak direnak, demokrazia eta justizia horren kalitatea nolakoa den erakusten du. Gerta daiteke tribunal honek, kasualitatez, sententzia txukun bat ematea (Egunkariaren kasuan bezala), baina ohiz kanpokoa da. Altsasuko kasuan gertatu dena ikusi dugu eta milaka kasutan antzera gertatzen da.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

2019/20 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula irailaren 27ra arte zabalik

aek

AURREZ AURREKO ESKOLAK
(AUTOIKASKUNTZA ETA ONLINE BIDEZ ERE IKASTEKO AUKERA)

- A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak
- C2 maila online
- Azterketak prestatzeko ikastaroak
- Hizkuntza eskakizunak: HABE, IVAP, Irale, Osakidetza
- MINTZA TALDEAK: Titulua izan arren, euskara maila hobetu nahi dutenentzat pentsatutako taldeak

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK:

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aec.eus **Udalaren laguntzaz BEKA SISTEMA**

Sostoa 1, 1. solairua **Tfnoa: 943 201 379**

Ikasle gutxiagorekin hasi da ikasturtea

Arrateko Jaiekin amaitu dira udako oporrak Eibarko ikasleentzat eta normaltasuna iritsi da etxeetara. Bixamon aurpegiak, irribarreak, barre-algarak, negarrak... Hasi da ikasturtea eta Eibarko ikastetxeetan izena eman duten 5.176 ikasleak prest daude erronka berriei aurre egiteko. Txikienen etapan, Haur Hezkuntzan 75 ume gutxiago izango dira ikasturte honetan.



Eibarren ikasle kopurua murriztu egin da, jaiotza tasaren ondorioz. Eibarko unibertsitatez kanpoko 5.176 ikasle hasi dira eskolan aste honetan (Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa), sare publikoan nahiz itunpeko

edo kontzertatuan. Etapa guztiak kontuan hartuta kopuruak behera egin du (iaz 5.241 izan ziren). Jaiotza tasaren beherakadaren ondorioa da.

Hizkuntza ereduari erreparatuta, D eredia aukeratzen dute ikasle gehienek. Etapa guztiak kontuan hartuta, ikasleen

%80k D eredian ikasiko dute hasi berria den ikasturtean. Aurreko urteetan bezala, adinean gora joan ahala euskerak indarra galtzen duela adierazten dute datuek.

Ikasle kopurua murriztu egin da lehenengo aldiz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, jaiotza tasa eskasaren ondorioz. Hori eman du aditzera aste honetan Cristina Uriarte Lakuako Gobernuako Hezkuntza sailburuak. Antzeko joera erakusten dute Eibarren jaso ditugun datuek ere, eta badirudi datozen urteetan joera hori finkatu egingo dela.

65 ikasle gutxiago aurten

Eibarko unibertsitatez kanpoko 5.176 ikasle hasi ziren eskolan astelehenean, sare publikoan nahiz itunpekoan. Etapa guztiei begiratzen badiegu, kopuruak behera egin du, jaitsiera apala bada ere. Iazko datuekin alderatuta zehazki 65 ikasle gutxiago (-%1,24) egongo dira 2019-20 ikasturtean.

Jaiotza tasaren jaitsierarekin beherakada Haur Hezkuntzan (2-5 urte) gertatu da bereziki. Aurten, Eibarren, 980


ikasle egongo dira HH-n, iaz baino 75 gutxiago. Lehen Hezkuntzan (6-12 urte), ikasle kopurua mantendu egiten da, 1.649 ikaslerekin. Hasierako etapa bi hauetako ikasle guztiek (2-12 urte bitartekoek) D eredian, euskera hutsean jardungo dute.

DBHn iaz baino ikasle gehiago

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan soilik (12-16 urte) igo da ikasle kopurua: iaz 1.110 izan ziren, eta aurten 1.154 izango dira (44 gehiago). Hizkuntza ereduari begiratuta, DBHko ikasleen %82k D eredia aukeratu dute, eta %18k B eredia. Proporzio hau iazkoaren antzerakoa da. Dena dela, datuak biltzerako orduan aurreratu digutenez, baliteke hurrengo ikasturtean, 2020-21ean, B eredia desagertzea eta, ondorioz, DBHko ikasle guztiak D eredian egotea.

Adinean gora joan ahala euskera behera

Iazko ikasle kopuruarekin konparatuz gero, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan behera-



Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek, 2.629 guztira, D eredian ikasten dihardute.

kada txikia eman da, bakoitzean 10 ikasle inguru gutxiagok jardungo baitute aurten. Batxilergoan 422 ikasle matrikulatu dira, eta 971 Lanbide Heziketako Zikloetan. Zenbakiei begirata ikusten da D ereduak aukeratzen duten ikasleen portzentaia behera doala adinean gora egin ahala. Batxilergoan %75ek D ereduak ikasiko dute (dena euskaraz), eta %25ek A ereduak (dena erderaz). Aurreko urteetan bezala, Lanbide Heziketan (Armeria Eskolan eta UNIn) A ereduak nagusi izaten jarraitzen du, nahiz eta aurten beherakada somatzen den erderazko ereduak. Ikasleen erdiak baino gehiagok, %53k A ereduak aukeratu dute (iaz %56 izan ziren), %28k D ereduak eta %19k B ereduak. Lanbide Heziketako zentroetatik ahalegin berezia egiten dihardute euskarazko adarrak bultzatzeko asmoz, *“helburua da 10 urtetako epean ikasle guztien %75 D edo B ereduak matrikulatuta egotea”*.

Sare publikoan %67

HH, LH, DBH eta Batxilergo kontuan hartzen baditugu, Eibarren familiek aukeratzen duten sareari dagokionez, berriz, %67k sistema publikoak aukeratu du eta gainerako %33k itunpeko edo pribatuaren aldeko hautua egin dute.

Ikasturte berrian pausu bat gehiago eman da herriko ikastetxe publikoetako DBH eta Batxilergoaren bateratzean. UNI Eibar-Ermua BHIko Batxilergoak Eibar BHIIn integratu dira. Ondorioz, UNIn hexagonoan zeuden batxilergoko gelak Jardinetako kaleko institutuak egongo dira. Jardinetan DBHko 3. eta 4. mailak eta Batxilergoak egongo dira, eta Moge-Isasin, berriz, DBHko 1. eta 2. mailak.

2019-2020 ikasturteko ikasle kopurua Eibarren

Haur Hezkuntza (2-5 urte)
980 ikasle

Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
1.649 ikasle

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)
1.154 ikasle

Batxilergoa (16 urtetik 18ra)
422 ikasle

Lanbide Heziketa Zikloak (16tik aurrera)
971 ikasle

Ikasleen %80k euskeraz egingo dituzte ikasketak, hau da, 4.183 ikasle eman dute izena D ereduak



Ikasleentzako diru-laguntzak

Ikasturte hasieran dauden gastuei aurre egin eta Eibarko merkataritza guneean erosketak egitea indartzeko orain dela 19 urte martxan jarri ziren diru-laguntzak dira 'Umeak Eskolara' eta 'Dirulaguntzak Ikasleei'

programak. 2 eta 15 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago lehena eta 16 eta 25 urte bitartekoentzat bigarrena, eta ikasle bakoitzak 60,10 euro jaso ditzake laguntza horien bitartez. Informazioa udalaren webgunean dago.

Urriaren 1ean kokapen berriarekin hasiko du ikasturtea Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialak. Azken 20 urtetan Jardinetak kalean egon eta gero, "Eibarko UNI"ra eraman dute berriro ere, han jaio baitzen 1990ean. Instalazio nagusiak –bulegoak, atezaintza, mintegiak eta 3 gela– Jaizkibel eraikinean egongo dira (Otaola 29n), eta, apurtxo bat gorago, Ingeniaritza Eskolan ere izango dituzte zenbait gela.



KOKAPEN BERRIA

izango du Eibarko Hizkuntza Eskolak

Matrikulazio epea oraindik zabalik dago Hizkuntza Eskolan (*on-line* egin behar da ondorengo webgunean: www.eoieibarheo.hezkuntza.net, IKASGUNEA plataformaren bitartez. Lehenengo fasea irailaren 18an amaitzen da). Oraindik, beraz, matrikulazio daturik ez badago ere, 1.000-1.200 ikasle inguru izaten ditu urtero Eibarko Hizkuntza Eskolak. Horiek ikasle ofizialak dira, ikasgelara joaten direnak, baina "modalidade libre" ere bada, eta hor beste 400 inguru izaten dira ur-

tero. Horiek bakarrik azterketara joaten dira. Ikasle ofizialak astean bi aldiz joaten dira klasera, baina "ikastaro erdipresentzialak" deitutakoak ere badaude. Astean behin joaten dira horiek eta gainerakoa euren etxean *on line* egiten dute.

Begoña Urruticoechea Eibarko Hizkuntza Eskolako zuzendariak azaldu digunez, "1990ean hasi ginen hiru hizkuntzarekin, euskara, ingelesa eta frantsesa. Eta gaur egun, horiez gain, alemana ere ematen da. Gure eskolak 'gela desplazatuak' ditu Az-

koitin eta Arrasaten. Azkoitin euskara, alemana, ingelesa eta frantsesa ematen da, eta ingelesa eta alemana Arrasaten. Ikasgeletatik kanpo hizkuntzak ikasten jarraitzeko aukera izaten dute ikasleek: mintegi bakoitzak jarduerak antolatzen ditu. Esate baterako iaz Koloniara eta Londresera joan ziren alemaneko eta ingeleseko ikasle batzuk; frantsese-

koak Iparraldean egon ziren egun pasa, eta aste kulturean hitzaldiak eta kafe/te jaiak ere antolatu ziren".

Eibarko eskola mapan egiten ari diren aldatetak direla eta, institutuan espazio gehiago behar zuten (Batxilergoko gela gehiago egongo dira aurten), eta hori izan da Hizkuntza Eskola Jardinetatik Otaolara joatearen arrazoia. Ikasleen %70 beste herri batzuetatik etortzen direla kontuan hartuta, "kokapen aldetik ondo ikusten dugu leku berria. Autobus-geltokia eta trenan bertan ditugu, eta kotxea apartzeko hobeto dago". Gainera, UNIn bertan hizkuntzak ikas-teko interesa izan dezaketen ikasle eta irakasle asko daude. Leku aldaketa zaila izan dela dio Urruticoecheak: "Fisikoki dena mugitu behar duzu, beharko duzuna kalkulatu behar da, obra txikiren bat egin behar izan dugu... Dena dela, espazio gehiago behar dugunez, gela batzuk beste eraikin batean, Ingeniaritza Eskolako eraikinean izango ditugu. Hala eta guztiz ere, bulegoa, atezaintza, mintegirako behar dugun lekua eta 3 gela Jaizkibel eraikinean daude". Detaile txikiren baten faltan, dena prest daukate urrian hasiko den ikasturte berrirako.




LUIS JESUS RAMOS AIZPURUA

2. URTEURRENA: 2017-IX-14



*"Beti zurekin, beti gurekin.
MAITE ZAITUGU"*

ETXEKUAK



Indianokua gaztelekuak gogotsu hasi du kurtso berria

Martitzenaz geroztik ohiko martxari heldu diote Indianokua gaztelekuan. Oporretatik bueltan, ikasurte berrirako jarduerak prestatzen hasita daude eta herriko gazteak eurekin bat egitera animatu nahi dituzte: "12-17 urte bitarteko gaztea bazara, Eibarko Indianokua gaztelekuan zure zain egongo gara! Lagunekin elkartu, jende berria ezagutu, jolastu, margotu, dantzatu eta mila ekintza egiteko aukera paregabea izango duzu. Zatoz!".

Muzategi kalean dagoen gaztelekua 18:00etatik 20:00etara za-

baltzen dute martitzen, eguazten eta eguenetan. Barixakuetan, berriz, 16:30etik 21:00etara; zapatuetan, 17:00etatik 21:00-etara; eta domeka eta jai egunetan 17:00etatik 20:30era. Astelehene-tan itxita egoten da. Gaztelekuak antolatzen dituen jarduera guztiei buruzko informazioa interneten, Indianokua gaztelekuaren blogean (eibarkogaztelekua.wordpress.com) begiratu daiteke eta, bestela, Indianokuako begiraleekin kontaktuan ipintzeko telefono zenbakia 688 682 372 da.



Ikasleentzat dirulaguntzak urriaren 31ra arte eska daitezke



2019-2020 ikasturtean ere "Umeak Eskolara" eta "Diru-laguntzak Ikasleei" ikasleei laguntzeko programak abiatu ditu Udalak. Ekimen bietarako 258.800 euro bideratzea onartu dute: horietatik, 188.800 euro 2 eta 15 urte bitarteko umeei zuzendutako "Umeak Eskolara" programarako izango dira eta beste 70.000 euroak, berriz, 16 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako "Diru-laguntzak ikasleei" programarako erabiliko dira.

Ekimen horren bidez, herriko dendetan erosketak egiteko 60'10 euro jaso ahal izango ditu ikasle-

bakoitzak. "Diru-laguntzak Ikasleei" programaren kasuan, 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako ikasleek eska ditzakete laguntza horiek, beti ere 2019ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean Eibarren erroldatuta egon badira eta ikasturteak adinako iraupena (gutxi gorabehera) duten ikasketa arautuak edo okupazionalak egiten ari badira (masterrak eta doktoretzak barne). Eskerak Eibar Merkataritza Gune Irekian (Untzaga, 7, Artola jatetxearen aldameneko bulegoan) aurkeztu behar dira urriaren 31 baino lehen.



ezagutzen dituzu
gure sare sozialak?



etakitto.eus



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- | | |
|--------------------------|-----------------------------|
| 1) Kardiologia | 10) Radiologia |
| 2) Zirurgia | 11) Urologia |
| 3) Dermatologia | 12) Traumatologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 13) Koloproktologia |
| 5) Análisi Klinikoak | 14) Erizaintza |
| 6) Ortodontzia | 15) Foto-depilazio Unitatea |
| 7) Otorrinolaringologia | 16) Psikologia |
| 8) Psikiatria | 17) Neurofisiologia |
| 9) Barne Medikuntza | |

BERRIA

*felix morquecho*

Hamar-hamabi lagun ginen,
denok berrogei urtetik gorakoak,
baina Eibarko Koru Gaztearen
modura abesten genuen, bikain!

Erronka berriak

Amets arraroa atzokoa! Arrateko eguna da eta, goiz-goiz esnatu eta gero, motxila hartu eta mendian gora abiatu gara. Bazegoen lokatza, bai, baina horrek ez gaitu kikilduko. Igoeran taldea ugaritzen hasi da, lagun batzuk elkartu egin dira eta ezezagunak ere gurekin batera ekin diote bideari erritmo onean. Batek euskararik ez zekien eta, hitz eginez, lehen eta bigarren pausuren artean ikasi egin du. Jarraitu dugu berbetan... eta nik frantsesez ere ikasi dut di-da batean, ona! Atsedena hartzeko geldialdi bat egin dugu eta taldeko batzuk zera esan dute: *“Erretze-ari utzi diogu!”*. Horrela, bat-batean. Aldapan gora jarraitu dugu eta abesten gainera (horretarako ere bagenuen arnasa), baina hori abesteko modua! Hamar-hamabi lagun ginen, denok berrogei urtetik gorakoak, baina Eibarko Koru Gaztearen modura abesten

genuen, bikain! Laster Betikuak taldekoak antolatutako hamai-ketakora ailegatu gara eta bertan entsalada eta lurrunean egositako arraina zegoen, sano, sano, eta denak pozarren. Ardoa, sargardoa eta garagardoa ere eskaini digute, baina denok ezetz, ura nahiago dugula. Arraroa dena, ezta? Baina zer demontre! Taldekoak berriro begiratuta kilo batzuk galduta zeuden guztiak, eta bidea hasteko momentuan baino ederragoak ere. Dena hobera egiten ari omen zen, baina sentzazio arraroa somatzen hasia nengoen. Azken metroak egin eta bertan ginen, Arraten, baina santutegiak itxura berezia zuen, nolakoa? Ikastetxe baten antza. Bertara sartu eta ikasturteari ekin behar genion, erronka berriak aurretik eta gogoz beteta. Justu orduan esnatu nintzen, ordua begiratu eta... ea, beste bost minutu jarraitu ditzakegu lotan.

*ekhi belar*

Nerabea nintzenean gogoratzen
dut abuztu amaieran etorri
eta jendea *de lujo* gora eta
de lujo behera entzutea


Txokolatezko domina

Abuztuko oporretatik bueltan berritasunak aurkitzen ditugu beti. Kale bat konpondu dutela, aspaldian ikusten ez zenuen eza-gun bat hil dela edo bapatean lagunek beste modu batean egiten dutela berba, hitz eta jargoi berriarekin. Nerabea nintzenean gogoratzen dut abuztu amaieran etorri eta jendea *de lujo* gora eta *de lujo* behera entzutea. *“-Zer moduz uda? -De lujo”*. Gure berba ohituretan sartu zen eta hor jarraitzen du, *de lujo*.

Antzeko adibide gehiago daude, baina hemen ez dut espazio nahikoa guztiak azaltzeko. Hori bai, esamolde berri guztiak gaztelaraz eh. Gaztelaraz egiten badugu, ba ondo, naturala da, baina euskaraz eginez gero, zer? Gaztelera sartu. *“Eibarren horrela egin izan dugu beti, trankilamentian”*. Aurrera orduan, pausoz-pauso euskararen erabilera gehiago murriztu arte, *de lasai*.

Ba begira, aurtengo oporretatik *sin más* itzuli naiz. Txikiak gine-nean nagusitan zer izan nahi genuen galdetzen zigutenean nik jubilatua izan nahi nuela pentsatzen banuen, zer nahi duzue? Lanera pozez zorutzen etortzea? Oso gustoko lana badut ere, sentitzen dut, baina ez. *“Pribilegiatu eskergabea!”*. Jan ahal izateko lan egiten dugu eta, zorionez, jatekoa ordaintzeko nahikoa dut (eta gehiago, bai), baina lana edukitzea pribilegioa dela konbentzitzen badigute, akabo. *“Pentsamendu hori hala-holakoa da!”*. Hala-holakoak garelako eta hala-holakoak izaten jarraituko dugulako, nahiz eta *coach, guru* eta bost pezetako mesiasak garaileen kultura sustatu. Egin kasu, mila frustrazio ekidingo dituzu. Ekoizpen-bideen jabetza gure esku egon ezean, langileok galtzaile izaten jarraituko dugu. Txokolatezko domina irabazten duten garaileak. *Qué púa*.

KITTONBOLIA



Eguraldiari kostatu zitzaion guztiok nahi genuen moduan erantzutea, baina eguerditik aurrera bere aurpegi onena erakutsi zigun eta, horrekin batera, jendez gainezka izan genuen KITTONBOLOIA bera ere. Urtero moduan, goizeko 07:00etan ekin zion lantaldeak txokoa prestatzeari eta 10:00etan zabaldu genuen. Berehala hasi ziren lehenengo sariak ateratzen eta, orduak aurrera egin ahala, joan ziren irtetzen urdaiazpikoa, etxerako apaingarriak, elektrodomestikoak, tabletak, txuletak, legatza, afariak, motxilak, erropa... 17:30ak bueltan tonbola itxi genuen arte, hori bai, sari guztiak banatu eta gero.

Betiko moduan, oraingoan ere portatu zarete! Mila esker eibartar guztioi urtero Arrateko Amaren egunean euskerrari ematen diozuen babesarengatik. Mundialak zarete benetan! Eta eskerrik asko, nola ez, Kittonbolako opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, elkarte, enpresa eta erakunde guztiei. Zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke horrelako zerbait antolatzea.



Abestiak dioen moduan, "txanpon baten truke" opari jasotzeko aukera izan dute Arrate egunean Kittonbolan egon direnek. Eskerrik asko KITTONBOLA posible egiten duzuen denda eta enpresa guztiei!!!



ANTOLATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

LAGUNTZAILEAK:

- ...eta kitto!
- Akara
- Ansa bitxitegia
- Aratatto
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Atelier
- Athletic Club Fundazioa
- Avia Amaña gasolindegia
- Avia Azitain gasolindegia
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Baisi
- Birjiñape berria
- Benicoba
- Burbujas y Mas
- Capi
- Closet
- Dandara
- Dirdai
- Ditare
- Eguren
- Eibar Eskubaloia

- Eibar Kirol Elkartea / SD Eibar



- Eibar Rugby Taldea
- Eibar Sasoian
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala (Kultura)



- El Canton de la Avenida



- El Corte Ingles




- El Jardin de Tulipa
- El Vestidor
- Emankor



- Eroski Eibar Hipermerkatua
- Eskarne
- Esther Galarza
- Farmalur
- Forchetta
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Gustatzen Jata
- Helmet House
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe Spa
- Ibarkurutze frutadenda
- Ikusimakusi

ESKERRIK ASKO laguntzaile eta parte-hartzaile guztiei!!!

- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki Harategia
- Ipur Sagardotegia
- Irei Estetika
- Irritsa



- Ixua Hotela
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- Jauregi
- Jaz Zubiaurre
- Jeronimo



- Jorge Vega
- K2
- Kantabria Jatetxea
- Kantoi Gasolindegia
- Kenay estetika
- Kenko (Eneko Mallagarai)
- Kenko (Laura Alluriz)
- Kerala
- Khol ileapaindegia
- Kokein
- Kontent
- Kopina
- Kresala arraindegia

- Kultu taberna
- Klaus
- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lolas
- Lugaritz Autoak
- Luis del Rey
- Marais
- Marsi
- Mas Que Wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Muma
- Neure
- No Comment
- No+Vello



- Pio Pio
- Oberena harategia
- Oihal
- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia

- Pirritx eta Porrotx



- Publi-Resa
- Residence Coffe Bar
- Salaberria
- San Andres gozotegia
- Sosola baserria
- Su Beroa
- Su ta Gar
- Tacto
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik



- Yraolagoitia
- Zorionak Kid's and Party
- Zubi Gain
- Zurkulu



bertso-afaria



dantza soltea



arrateko amaren
dantzak



Arrateak 2019

ARGAZKI GEHIAGO:
etakitto.eus



prozesioa

trikiti-bertso



giroa zelaian



herri kirolak



dantzaldia



kontzertuak



txosnetan



Milaka pertsonak bezala Donejakue Bidea egin dute udan Iker Iraolagoitia eibartarrak, Adolfo Rodriguez eta Nekane Fernandez bizkaitarrek eta Deva Prendes asturiarrak. Euren egindako bidea, ordea, berezia izan da. Santiago Bidea egin du laukoteak, hau da, urpeko Donejakue Bidea. Uztailearen 25ean, Done Jakue egunean, Hondarribian hasi zuten abentura eta abuztuaren 26an iritsi ziren Santiago de Compostelara. Etapa batzuk urpean eta beste batzuk oinez, bide berri bat zabaldu du laukoteak.



IKER IRAOLAGOITIA (urpekaria):

“Gero eta arrain gutxiago dago Kantauri itsasoan”

- Nolako abentura bizi izan duzue urpeko Donejakue Bidean?

Bikaina! Ez da oso gogorra izan, ni behintzat ondo prestatu naizelako, baina eguraldiaren eta itsasoaren egoeraren arabera ibiltzea izan da txarrena. Hasierako plana moldatu behar izan dugu eta urpean egin beharreko lau etapa atzeratu genituen. Lehen hamabost egunak nahiko lu-

zeak egin zitzaizkidan, baina azkeneko hamarrak oso azkar pasatu dira.

- Nolako ibilbidea jarraitu duzue?

21 etapa egitea pentsatzen genuen eta horrela izan da. Urpean ez geundenean oinez ibiltzen ginen. Normalean ordu eta erdiz edo bi orduz urpean igeri egiten genuen eta gero beste bi orduz oinez. Oinez egin beharreko ibilbidea nahiko on-

do prestatu genuen eta urpekoa tokian tokiko urpekaritza zentroekin koordinatu genuen.

- Nola moldatzen zineten oinezko eta urpeko ibilbideak egiteko behar zenuen materiala garraiatzeko?

Lau lagun izan gara urpean eta oinez ibili garenak, baina beste lagun bat etorri da furgoneta batekin gure ekipoa garraiatzeko.

- Nola sortu zen Santiago Bidea egiteko ideia?

Orain dela lau urte inguru Adolfo bururatu zitzaion ideia da. Donejakue Bidea egin zuen bikotearekin eta alabarekin, eta maitemindu egin zen. Orduan, ideia ona iruditu zitzaion Donejakue Bidea bere pasioarekin, urpekaritzarekin, uztartzea. Urpekaritza taldekoei bere asmoaren berri eman zigun eta niri ideia zoragarria iruditu zitzaidan, eta orain dela pare bat urte Santiago Bideari forma ematen hasi ginen.

- Luzea egin zaizue prozesua?

Gogorra izan da. Gure ibilbidean monolito batzuk ezartzeko asmoa genuen, Donejakue Bidea dela zehazten duten gezi horia daramaten harriak, baina baimena behar da hori egiteko eta demaseko bueltak eman behar izan genituen. Urpean bi monolito jarri ditugu. Lurralde autonomikoe-



Iker, Adolfo, Nekane, Nekane eta Devak talde-lan ona egin dute Santiago Bidea osatzeko.

tako portu zuzendaritzen ardurapean dago hori eta prozesu erraza izan da. Uretatik kanpo daudenak jartzeko, ordea, kostako aginpideekin egin behar genuen berba eta Kantauri itsasoko autonomia guztiek baiezkoa eman baziguten ere, eskaera Madrileran eraman zuten eta Gobernuak ezezkoa eman zigun. Kantauri itsasoko autonomiek eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzak asko lagundu digute bide honetan, eta ur kanpokoan monolito bat jartzeko aukera izan dugu.

- Non jarri dituzue monolitoak?

Urpekoak Santanderreko Mouro uhartean eta Getxoko portuan jarri ditugu, eta ur kanpoko Getxoko kirol-portuan.

- Zenbat gehiago jarri nahi zenituzten?

Bost gehiago. Gure asmoa lortzeko lanean gabiltza, Gobernuaren ezezkoaren aurrean erreklamazioa aurkeztu genuelako.

- Esperientzia errepikatzeko asmoa duzue?

Lehenik eta behin esperientziaren balorazioa egin behar dugu. Zer irten den ondo eta zer ez, akatsak berriz ez errepikatzeke. Egindakoa legalizatzea izango litzateke hurrengo pausoa. Jende askok dena eman du proiektu hau gauzatzeko eta Donejakue Bidea urpean egiteko aukera eskura eduki nahi dute. Otsailean, adibidez, Bartzelonan izan ginen urpekaritza-azoka batean eta jendeari ideia bikaina iruditu zi-



Iker, Nekane eta Adolfo urpean murgildu aurretik. Beheko argazkian: Urpekariek Santiago de Compostelako katedralaren aurrean.

“Kantauri itsasoa urpekaritzarako toki bezala sustatu nahi dugu”

tzaion. Askok ez zekiten Kantauri itsasoan urpekaritza egiteko aukera zegoenik ere. “Ez da oso iluna? Ura ez dago oso hotza?”, esaten ziguten. 2021. urtea Done Jakue urtea izango da eta ordurako dena prest edukitzea da gure asmoa. Azken finean bi ideia nagusi izan ditugu proiektu honekin: batetik, poliki-poliki itsasoa izorrratzen ari garela jakinaraztea. Kantauri itsasoa zaindu nahi dugu. Adolfok 30 urte baino gehiagoko esperientzia du urpekaritan eta berak esaten duenez lehen askoz ere arrain gehiago ikusten ziren Kantauri itsasoan. Kontzientzia piztu nahi dugu eta, ahal bada, erreserbak sustatzea; bestetik, Kantauri itsasoa urpekaritzarako toki bezala sustatzea nahi genuen, urpekaritzaren munduan nahiko ezezaguna delako. Santiago Bidea Kantauri itsasoan bakarrik egin ahal da, Donejakue Bidea hortik pasatzen delako, eta turismoari dagokionez eskaintza zabaltzen du.

- Hasiera batean dirudiena baino proiektu handiagoa da Santiago Bidea. Hasieratik ikusi duzue horrela?

Ez, baina proiektua prestatzen gindozan heinean demaseko erakarpena izan zezakeela ikusi genuen. Urpekaritza zentroek ere gauza bera ikusi dute eta demaseko laguntza eskaini digute. Proiektuak aurrera egiten badu, eurentzat oso garrantzitsua izan daiteke.

- Zer aurkitu duzue ur azpian?


Kantauri itsasoa zikina dago, baina ez da hainbesterako. Mikroplastikoak aurkitu ditugu batez ere. Kontua da arrainek mikroplastikoak jaten dituztela eta guk arrainak jaten ditugula. Beraz, itsasoan gero eta arrain gutxiago badago, mikroplastiko gehiago egongo da. Ur azpiko garbiketa egiten dugu urtero eta plastiko kopuru handi xamarra ateratzen dugu, baina urpean zaudenean ez dira hainbeste plastiko zati handi ikusten. Arrain gutxi ikusi ditugu, gero eta gutxiago dagoelako Kantauri itsasoan.

- Nola antolatu zarete talde moduan? Bakoitzak eginkizun bat zuen?

Lanak banatzen genituen, baina denetarik egin dugu guztiok. Urpekaritza zentroetara deitu, argazkiak atera, bazkaria/afaria egin, materiala prestatu... Taldeko batek, gainera, espedizioaren irudiak grabatu ditu eta dokumental bat egiteko asmoa dugu. Oso ondo moldatu gara. Bi neska eta bi mutil izan gara, eta emakumeen artean urpekaritza sustatu nahi izan dugu, gutxiago ibiltzen direlako.

- Dokumentala noiz egongo da ikusgai?

Irudiak grabatu ditugu, baina lan handia dago egiteko oraindik eta ez da erraza. Dirua eta denbora behar da eta hor gabiltza, baina guretzat garrantzitsua da egin duguna ezagutzera ematea. Eibarko alkatearekin bildu naiz eta honen inguruan zer egin dezakegun ikusiko dugu. Eibarko Udalak asko lagundu digu, hainbat enpresek eta Klub Deportiboko urpekaritza saileko Javi Escuderok bezala, berari esker gauza asko egin ahal izan ditugulako.



200 ikastaro eta 36 jarduera Kirol Patronatoaren eskaintza berrian

Astelehenean hasi zen 2019-20 ikasturte berria Kirol Patronatoko instalazioetan, 200 ikastaro, 36 aktibitate desberdin eta 3.000tik gora plaza hartzen dituen eskaintzarekin. Egitarau berria hainbat berritasunekin dator, tartean guztiei zuzendutako uretako gimnasioa (fitnes gela igerilekura eramanez) eta astero egun bakarreko ikastaroak egiteko aukera. Horiez gain, aurreko urteetan moduan, eskainitakoa ondo ez datorikentzako ikastaro pertsonalizatuak ere prestatuko dituzte.

Helduentzako areto aktibitateetako eskaintza honakoa da: Ipuruia kiroldegian, gorputz+gogoan, Matt Pilates eta Yoga Barneratua; koreografie-



tan, Dantza, Aerobic eta Zumba; tonifikazio eta kardioan, lehengo Fitness, Just Pump eta 132 Forman aktibitateei Spinning, Funtzional Hit, Funtzional + eta Core Express gehitu zaizkie; nagusietan, Fitness Seniors, +0 eta +70, Intentsitate Baxua eta Ibilixan; osasunean,

Kirol egokitua eta Hipopresibekin batera, oraingoa K- eta Stretch ere eskainiko dira; eta kirolean, Karateaz aparte, Nordic Walking ipiniko da martxan. Orbea kiroldegiko eskaintza beste honakoa izango da: gorputz+gogoan, Matt Pilates eta Yoga Barneratua; koreografie-

tan, Dantza eta Zunbarekin, Lehiaketarako Dantza aktibitate berria; tonifikazio eta kardioan, lehengo G.A.P eta Bossuri Funtzional Hit, TRX, TRX + eta Core Express lau modalitate berriak gehituko zaizkie; nagusietan, +60 eta +70; eta osasunean, Hipopresiboak. Haurrentzako eskaintzan, Karatea, Dantza Erritmoa eta Dantza Txiki izango da Ipuruan eta Orbean. Eta Unben tenisa eskainiko dute eta Nordic Walking urritik hasi eta ekainera arte. **Umeendako igeriketa** eskaintza zabala da bai Ipuruan, baita Orbea ere. Tartean dira egun bakarrekoak zapaburu mailan 2016an jaiotakoentzat eta 2015ean jaiota uretan espe-rientziarik ez dutenentzat.

Xake Eskolan matrikulatzeko epea zabaldu dute Deporren

2019/2020 ikasturterako Xake Eskolan matrikulatzeko tarte zabaldu dute eta irailaren 27an amaituko da. Matrikula egiteko izenemate orria www.deporeibar.com/xakea helbidean dago eta barixakuetan, 18:30etik 20:30era, Eibarko Klub Deportiboaren bulegora eraman behar da. Klaseen prezioa, hiruhilabeteko, 30 eurokoa da eta klubeko bazkide izan beharra dago klaseetara joateko. Matrikularen prezioa ordaintzeko kontu-zenbakia eta bazkide egiteko txartela klubean bertan lortu daitezke. Taldeetarako esleipenak monitoreek egingo dituzte eta kasu bereziak ere aztertuko dira. Hilaren 27tik aurrera jakinaraziko zaizkie partaideei taldeak eta ordutegiak.



Foball-zaletua hasteko prest

Astelehenean aurkeztu zuten Isasiko Kirolbet-en egoitzan asteburuan hasiko den denboraldi berrirako egutegia eta parte-hartzaileen zerrenda. Aurreko urteetakoei jarraituz, Unbek asteburuero hartuko ditu partiduak.

Domekan Asola Berrin jokatu da Arrateko Amaren hiru-txirlo tiraldia

Arrate egunaren goizaldean botatuko euriak kaltetu egin zuen Arrateko bolatokia eta ezin izan zen egun horretako txapelketa jokatu bertan. Hori dela-eta, etzi 17:00etan hasita izango da jokoan Asola Berrin. Tiraldian parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko da eta sariak honakoak izango dira: irabazleak, txapela, 100 euro eta urdaiazpikoa; bigarrenak, 70 euro; hirugarrenak, 50 euro; laugarrenak, 30 euro; eta bosgarrenak, ustekabea.



Errugbi talde nagusiak indartu egin dira hainbat fitxaketarekin

Emakumezkoen Avia Eibar Rugbyk esperientzia duten hiru jokalariek ekarri dituzte taldera: Eider Olarreta Gernikatik dator, Euskadiko selekzioarekin jokatu du eta aurrelari nahiz linean jarduten du; Nuria Yurritak zortzi urte egin zituen Madrilgo Cisnerosen azken denboraldian Baionako ASBn jokatu aurretik eta hainbat selekzioan jokatu du, hegal edo arrier posizioan; eta Laura Lorenzo ere ASB-tik dator, aurretik 21 urtetan hainbat taldeetatik pasa eta gero (Atletico San Sebastian, Hernani, Eibar, Valentziako UCB, Zeelanda Berriko College Rifles eta Cisneros) eta lineako postu askotan jokatzeko gai da. Laura Lorenzok, gainera, Aviako staff teknikoaren osatuko du, lineako entrenatzaile moduan.

Gizezkoen Avia Eibar Rugbyk, bestalde, aurrelari lanetan jardungo duen Favio Zuñiga fitxatu du Galiziako Muralla taldeetik: 23 urte ditu, 1'94 neurtzen du eta 122 kilo pisatzen. Eta UER Mondacatetik Facundo Coronel zabaltzaile argentinarra Eibarko linea osatzera dator: "10 postuan jokatzera etorri bada ere, zentro eta arrier postuetan jokatzeko gaitasunik ere badu". 25 urte, 1'75ko altuera eta 85 kiloko jokalaria oso azkarra da. Azkenik, Federico Scarlato taldearen lehenengo lerroa indartzeko etorri da; argentinarra 30 urte ditu, 1'78 neurtzen du eta 130 kilo pisatzen. Eta Franco Maggiolo italiar-argentinarra beste urtebete jarraituko du.



Emakumezkoen taldeko fitxaketek esperientzia ekarriko diote taldeari.

Euskadik L.A.R.G.E.-ri irabazi zion

Aurreko zapatuan Lapurdiko Mouguerren jokatuako Euskadiko eta Frantziako hainbat herriz osatutako L.A.R.G.E.-ko selekzioaren arteko partiduan Eibarko zortzi jokalarirekin jardun zuen Euskadikoak irabazi zuen. Lucia Moya, Aleu Cid, Nerea Garcia, Kaiane Bedones, Naiara Chimeno, Eider Olarreta, Amaiur Mayo eta Jo-ne Agirrezabal sartu ziren 18 jokalariko deialdian eta partidak 12ra izan ziren, 30 minutuko bi zati jokatzeko.

Mendizaleentzako irteera desberdin eta interesgarriak irailean



Besaide Eguna ospatuko dute asteburuan. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban urtean hildako mendizaleen aldeko meza izaten da.

Klub Deportiboko mendi baztordeak "jende guztientzat, gailur handietan ibiltzen diren eta zailtasun gutxiagorekin moldatzen direnentzat" moduko irteerak antolatuta dituzte hilabete honetarako: Bihar Artzaintza Naturbidearen 5. etapa egingo dute, Opakuatik Bioitzaraino, bidean 1.197 metroko Baio mendia gaindituta: "19 kilometroko etapak ez dauka zailtasun berezirik eta edo-

zein mendizalek egiteko egokia da". Irailaren 21ean 969 metroko Mugarrako ertza izango dute helburu. Eta 28 eta 29ko azken asteburuan Picos de Europa joango dira, Morra de Lechugales (2.443 metro) eta Pico Samelar (2.229 metro) egiteko. Interesatuak ohiko egun eta orduetan pasatu daitezke Deporrek bulegoetatik, martitzen eta eguenean, 19:30etik 20:30era arte.

Ipuruako gimnastek indarberriturik hasi dute ikasturtea

Hastapen, eskola eta amateur mailakoek astelehenean hasi zuten ikasturtea, abuztuaren 26an federatuak hasitako bidetik. 22 gimnastek osatzen duten Ipuruako federatuen taldea (absolutu mailako senior eta juniorrak, oinarri mailako jubenil eta infantilak eta banakako modalitateko bi gimnasta) azaroan eta abenduan taldekako Espainiako txapelketei eta hainbat modalitateko Kopei egin beharko diete aurre, Tania Nagornaia, Miriam Merino eta Natasha Urmakueva teknikarien aginduetara. Az-



Federatutako gimnastek emaitza bikainak izan dituzte azken denboraldian.

ken denboraldia azken urteotako onenetakoa izan da Ipuruako gimnastentzat, lehiaketa


garrantzitsuenetan emaitza paregabeak eskuratuta. Hilabete honetan Nafarroako Uni-

bertsitateko Torneoak jokatu dute 21ean eta Donostiako Izar Leku hilaren 28an; horiekin batera, klubak urriaren 19an jokatu den San Andres Torneoaren XXI. edizioa dihardu prestatzen eta "dagoeneko 300 gimnastatik gora eman dute izena". Eskola eta amateur mailako gimnastak urtarrilean hasiko dira lehian, baina kirol hau praktikatzen nahi duten guztiek Ipuruako kiroldegira arratsaldean edo gimnasiaipuruara@hotmail.com helbidera jo dezakete hilabete honetan izena emateko.


Domeka goizean Simon Aldazabal Sariaren 24. edizioa jokatu da Orbetik igota

Etzi goizean, 10:30ean Klub Deportiboaren aurretik irtenda, Simon Aldazabal Sari Nagusiaren beste edizio bat jokatu da. Bost kilometro eta erdiko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek Orbe bidetik eta 09:30etik aurrera eman

dezakete izena Deporren bertan. Arraten proba amaitzerakoan, lehenengo sailkatuek dagozkien sariak jasotzeaz aparte, beste hainbat sari ere banatuko dira helmugaratutako guztien artean. Markinan jaiotako Simon Aldazabalek Eibarko Klub Deportiboan eman zituen bere urterik onenak atleta moduan eta Elgoibarko Mugertza Krosa ere bereganatu zuen. Berrera da oraindik hautsi ez den marka bat: Arratetik Aguiñaspi tabernaraino jaitsi zenekoa, zortzi minutu eta erdiko denborarekin.




SIMON ALDAZABAL 2019



Kross herrikoa 5,5km
IRAILAK 15
ARRATE IGOERA ORBETIK

IRAILAK 15, 10:30ETAN
DEPOR AURREAN
INSKRIPZIOAK DOHAN DEPORREN SETATIK AUERRERA



laz 42 parte-hartzaile

Euretako hiru emakumezkoak izan ziren. Pello Osoro (28 minutu eta 5 segundo) eta Aitziber Urkiola (33 minutu eta 9 segundo, zortzigarren helmugan) eibartarrak izan ziren irabazleak; Klub Deportiboko atletismo batzordeak antolatzen duen proban parte hartzeko izen-ematea doan da.



Markel Susaetak Japoniako Gamba Osakan jokatu du

Markel Susaeta foballari eibartarrak Japonian jarraituko du bere ibilbidea, Gamba Osaka taldean, hain zuzen ere. Athletic Cluben 12 denboraldi egin eta 507 neurketa jokatatu ondoren, Susaetak abentura berria hasiko du gaur egun JLeague-ko 14. postuan dagoen taldean. Eibartarrak denboraldi amaieraraino jokatu du printzipioz, hau da, lau hilabete egingo ditu Japoniako taldean. Bestalde, 2. A mailako Albaceten jokatu duen Nestor Susaeta bere lehengusuak penaltiz sartutako golarekin irabazi zion Gaztela-Mantxako taldeak A Coruña-ko Deportivori Riazoren jokatu duen azken jardunaldiko partiduan.

Eskozia La Brava seigarren izan zen udako Peñen Arteko XIII. Torneoan

Aurten Palentzian jokatu den Peñen Arteko 13. edizioan, eibartarrak lortutako postu hori baino gehiago ere merezi izan zuten erakutsitako jokoarengatik. Hala ere, pozik bueltatu dira Eskozia La Brava-koak "Palentinaekos (Unión Popular de Palencia) antolatutako anaitasunezko jaietan bizi izandakoarekin, foballa gure erara biziz". Getafeko Sección Pollos-ekin hiruna berdindu zuten Eskoziakoek lehenengo partiduan: "Azken minutuan adierazitako penalti batekin berdindu ziguten". Bigarren neurketak "aurrikusitakoari jarraitu zion" eta Cultural Leonesako Toribio Moran favorito nagusiekin 7-1 galdu zuten eibartarrak. Eta Athletic Club-eko Peña Burgalesakoekin ere galdu zuten Eskozia La Brava-ko-



ek atsedenaldira husna berdinduta heldu eta gero. Emaitza horiekin, Toribio Moraneko eta Peña Burgalesakoak sartu ziren finalerdietan; A multzoan, bestalde, La Kuadrilla eta Ezkerraldeak heldu ziren fase horretara. Finalean Toribio Moranek 3-2 irabazi zion Ezkerraldeak taldeari.



Gaizka Hernandez Basket Navarraren entrenatzaile

Eibarko saskibaloitzaileak Zilarrezko LEB mailako Basket Navarra Klubean entrenatzaile laguntzaile jardungo du denboraldi berrian. 38 urteko Gaizka Hernandezek 19 urte egin ditu teknikari moduan jokalaritza izateari laga zionetik. Aurretik 1. Nazional mailako Navarra Villoslada entrenatu zuen eta azken denboraldiotan EBA Ligako Ardoin laguntzaile izan da. Berak eta Iñigo Baigorri lagunduko diote Xabi Jimenez Zilarrezko LEB mailako denboraldi berrian.

Ifar Kale utzi eta Ubitxara igo da Dantza elkarte, Biharran elkartearen egoitzara, hain zuzen ere. Egin dute mudantza. Aro berri baten hasiera izango da Dantzanentzat, proiektu eta ekintza berriak egiteko aukera, azken urteotan hazi egin den proiektua indartu eta sendotzeko abagunea. Biharranaren espiritua jaso eta lanean eta dantzan jarraitzeko bultzada jaso du Dantzanek lekualdaketarekin.

Biharran elkartean egoitza zuten profesionalak (Anemona estudioak, GAC Arkitekturak eta Aitor Zubizarreta aholkulariak) bide berriak hartu dituzte eta Dantzan elkarteak bete du euren tokia Ubitxa, 16 kalean dagoen lokal handian. *"Ifar Kalen genuen espazioa baino handiagoa dugu hemen eta orain arte egin ahal ezin izan ditugun gauzak egiteko aukera eskaintzen digu"*, dio Oier Araolaza Dantzan elkarteko kideak. Dantzan ez da dantzari buruzko informazioa igortzen duen komunikabide bat bakarrik (www.dantzan.eus), askoz gehiago da. *"Hastapenean dantzan.com webgunea egon zen, baina dantzaren inguruko hainbat lan eta jarduera sortu eta iritsi zitzaizkigun nahiko azkar"*. Gaur egun webgunea eskaparatea da (*"sortu gintuena eta leiho garrantzitsua"*), baina euren jarduera eta finantzazio gehiena beste zeregin batzuetatik dator. Den-denak dantzarekin lotutakoak, noski. *"Dokumentazioarekin, artxibatzearekin, digitalizazioarekin eta irakaskuntzarekin (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dantza tradizionalako irakasleen formakuntza, besteak beste) lotutako lanak dira"*. Gainera, Gipuzkoako Dantzagunearen kudeaketaz arduratzen dira. *"Erreterian du egoitza eta dantzako profesionalentzako zerbitzuak eskaintzen ditu"*. Dantzas eta Eragin bazkideekin kudeatzen du Dan-



Biharran eta dantzan

tzagunea Dantzanek, eta lantaldeko bi lagunek Erreterian egiten dute beharra. Eibarko egoitzan, "egoitza zentrolean", bestalde, lau lagunek dihardute.

Hasteko, soka erakusketa

Biharran elkartearen espirituari eusten saiatuko da Dantzan eta Ubitxako lokala sorkuntzarako eta kultur adierazpenentzako gune irekia izaten jarraitzeko asmoa du. *"Biharranekin sentitzen dugun konpromisoa da eta, gainera, horretan sinesen dugu"*.

Momentuz, egoitza berriarekin berritasun bat dakar Dantzanek: 'Soka, euskal dantzaren urratsetan' erakusketa. Orain dela bost urte sortu zen eta Dantzanek ekoizpenean parte hartu zuen. *"25 tokitan egon da eta demaseko arrakasta izan du"*, Araolazaren berbetan. *"Eibarrera ekartzeko asmoa genuen lehen ere, baina ez zen erraza izan espazio kontuengatik. Orain, ordea, badugu aukera"*. Azaroan egingo da erakusketa.

Posta-zerrendatik erreferente izatera

Posta-zerrenda batetik abiatu zen Dantzan, 1998. eta 1999. urteen inguruan,

eta bere sorrera 'Eibartarrak' posta-zerrendarekin oso lotuta dago. *"Euskal Herriko internet alorrean guru xamarra izan den Luistxo Fernandezekin posta-zerrenda bat zer den ikasi genuen, eta 'Eibartarrak' posta-zerrenda sortu eta gutxira sortu genuen 'Dantzan' posta-zerrenda Euskal Herriko dantzarien komunitatea elkarrekin komunikazioan jartzeko asmoz"*. Zerrendatik webgunera egin zuten jauzia ondoren, 2001ean, *"CodeSyntax enpresaren lehen lanetako bat izan zelarik"*. 2002an Dantzan elkarte sortu zen eta gainerakoa historia da.

Proiektua Kezka Dantza Taldetik sortu zen, baina berehala ikusi zuten Dantzanen dimentsioak maila lokala gainditzen zuela. *"Kezkaren helburuak Eibarko dantzaren dinamizazioan zentratuta zeuden eta Dantzanekin, internet bidez, Euskal Herriko toki ezberdinetako lagunekin proiektuak lantzen hasi ginen"*. Kezkek eta Dantzanek lotuta jarraitu izan dute (*"batean eta bestean jardun dugun batzuk pertsona berdinak izan garelako, eta bata bestearen mesederako erabili dugulako"*), baina bakoi-tzak bere dinamika propioa izan du. Han dantza, non Dantzan.





PERIKO IRIONDO: Presara joan eta zeru-urak ezkondu.

Hogei kidetik gora dituen Durangoko Bogoroditsie abesbatzak "Herejia" ikuskizuna taularatuko du bihar, 20:30ean Coliseo antzokian. Ikuskizunak XV. mendean, Alonso de Mella frantziskotarrak sustatutako mugimendu heretikoaren kontrako jazarpena du oinarri. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta aldeztuak erosteko aukera dago, internet bidez edo Coliseoko lehiatilan astelehen eta barixakuetan, 17:30etatik 19:30era.



Musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen "Herejia" aurkeztuko dute bihar

Musika, antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko dute bihar iluntzean, Ion Ugarrizaren zuzendaritzapean eta, azalduetakoren arabera, "hiru diziplina artistikoak ez-konduz eta interpretazioa propio zainduz, giro berezia sortu eta bertan murgildu nahi da ikus-entzulea". Testua Josu Unzuetak idatzi du, eta antzezleak Ernesto Barrutia (inkisidorea) eibartarra eta Izaskun Iturrioz (sorgina) izango dira. Dantzaz eta koreografiarantz, berriz, Beñat Urrutia Dantzeri taldeko dantzaria arduratu da. Klabikordiorako moldaketak Roberto Oviedok egin eta joko ditu. Eta ikuskizunean zehar entzungo


diren 12 musika-konposizioak Amaia Urzainkik (lamia) eta Bogoroditsie abesbatzak abestuko dituzte.

2017ko urrian estreinatu zen ikuskizunaren sortzaileen berbetan, "1439. urtean, Alonso de Mella, Guillermo de Alviza eta Angel Tovar frantziskotarrak Durangora etorri ziren, eta otoitzaren eta karitatearen bidez bikaintasuna lortzen zela aldarri-



bortitz baten ondorioz, berrogei durangar baino gehiago epaitu zituzten; haietako hamar erre egin zituzten, eta beste zazpi emakumeren gorpuak lurpetik atera, erre eta errautsak lau haizetara bota zituzten. Prozesua bereziki gogorra izan zen emakumeekin. Izan ere, zigortutako gehienak emakumeak izan ziren".

"Herejia" ez da, baina, Durangoko gertaera ilun haien kontakizun erreala: "Gertakari historikoetan oinarrituta badago ere, modu librean egiten da errelatoa. Jazarpena bizi izan zuten gizon-emakumeei gorazarre egin eta era guztietako bidegabeke-riak salatu nahi dira ikuskizunaren bidez".



katu zuten. Amodio librea eta ondasunak elkarren artean banatzea zen legea, beti ere karitatearen izenean. Denbora gutxian, jarraitzaile ugari izan zituen mugimenduak. Baina elizaren eta erregearen legeak urratzen zituztela salatu zuten, eta Inkisizioa Durangora etorri zen. Prozesu anker eta





PANCHO VARONA
(musikaria)

“Abestien arimara heltzen gara kontzertu hauetan”

Pancho Varonak 37 urteko ibilbidea egin du musikaren munduan eta ‘Ruta 52’ biran urte hauetan sortutako abestiak eraman ditu hara eta hona. Estatuko 20 probintzian jo ondoren Eibarren izango dugu gaur 22:00etan Coliseoan Joaquin Sabina, Joan Manuel Serrat, Ana Belen, Christina Rosenvinge eta beste hainbat artista handirekin sortutako abestiak kantatu eta kontatzeko.

- Zein bide musikal igarotzen ditu ‘Ruta 52’-k?

37 urtetan igaro ditudan bideak. Talentudun musikariak hurbil edukitzea izan da bizitzan izan dudana zortetik handiena. Era askotariko bide ederretatik eraman naute Joaquin Sabina, Manolo Tena, Luz Casal, Ana Belen eta abarrek. Urtarilean hasi nuen bira eta 20 probintzian jo dut dagoeneko. Amets bat da.

- Gipuzkoari dagokionez Eibarren bakarrik joko duzu?

Momentuz bai, baina probintzia berean kontzertu bat baino gehiago eskaini dezaket. Pozik, harro eta gogotsu noa Eibarrera.

- Ez da zure lehen aldia Eibarren.

Oso oroitzapen onak ditut Eibarren eskaini ditudan kontzertuen inguruan. Azkena jai batzuetan izan zen eta motorrean eraman gintuzten eszenatokira (barreak). Zoragarria iruditu zitzaidan. Eibar izugarri gustatzen zait. Desnibelen hiri ederra da.

- Formatu txikiko kontzertuak eskaintzen dituzu. Zergatik?

Gitarra eta ahotsarekin bakarrik igotzen naiz eszenatokira, kantu ezagunak abesteaz gain euren atzean dagoen historia kontatzen dudalako. Abestia zergatik, noiz, nola... egin zen azaltzen dut. Askok gustatzen zaidan formatua da. Gainera, neure buruari barre egitea asko gustatzen zait, kirol zoragarria da, eta tontokeriak kontatzen ditut jendea dibertitu dadin. Sabinaren zaleentzat kontzertu zoragarria izan daitekeela uste dut, maite dituzten abestien inguruko gauza asko ezagutuko dituztelako.

- Abestien atzean dagoen historia ezagututa abesti horien inguruko pertzepzioa aldatu daiteke?

Baietz uste dut. Aurrekoan Kordoban jo nuen eta hango lagun bik esan zidaten liluratuta zeudela kontzertuarekin, ezagutzen ez zituzten gauza asko jakin zituztelako eta hainbeste aldiz entzundako abestiak beste ikuspuntu batetik entzuten zituztelako orain. Abestien arimara heltzen gara.

- Abesti batek prozesu bat jarraitzen du konposatzen denetik entzulearengana iritsi arte. Nolako garrantzia du publikoak bide horretan?

Publikoak berebiziko garrantzia du, abestiaren helmuga publiko delako. Abesti bat inori erakutsi ezingo banio, abestiak ez luke zentzurik izango. Oso tristea izan behar da abesti bat egin eta inork ez entzutea. Beste pertsona batek entzutea da abesti bat existitzearen arrazoirik ederrena.

- Nolako bidea jarraitzen duzu abestiak konposatzeko?

Gaizki ohitu naiz Joaquin Sabinarekin (modu onean), abestien letrak idazten dituen momentuan pasatzen dizkidalako nik musika jartzeko.

- Zer duzu nahiago: abestiak konposatzea edo jotzea?


Baliteke gehien gustatzen zaidana konposatzea izatea, baina asko gustatzen zait jotzea eta abestiak kontatzea. Kontzertu hauetan gehien gustatzen zaidana berba egitea da.



Vivian Straub-ek bere marrazkiak erakutsiko ditu Kokojatenen

Gaur arratsaldean, 19:00etan zabalduko du “Bidean” marrazki erakusketa Vivian Straub-ek Kokojatenean (Calbeton, 8). Eibarren bizi den alemaniar gaztearen berbetan, “erakusketan ikusi ahal izango diren marrazkiak nire bidaia-koadernokoak dira eta, beraz, ia denak etxetik kanpora egon naizenean egindakoak

dira, bidaiatan, txangoetan, hondartzan, tabernaren batean norbaiten zain, autobusean... Azkar egindako erretratoren bat badago, baita animaliren bat edo beste, baina gehienbat paisaiak eta herri-giroko irudiak dira”. Erakusketa irailaren 28ra arte egongo da ikusteko moduan, bulego ordutegian.



Jose Miguel Laskurainek Ton.pendium Ensemble Wien orkestra zuzenduko du azaroan

Azaroan Vienara (Austria) joango da Jose Miguel Laskurain musikari eta orkestra zuzendaria, Ton.pendium Ensemble Wien orkestra zuzentzera, horretarako egin dioten gonbidapen zuzenari erantzunez. Han dagoen bitartean, nazioartean oso ezagunak diren musikariek jardungo dute eibartarraren esanetara, Matei lochimescu flauta-jole errumaniarrak, adibidez. Orkestra zuzendaria izateaz gain, Laskurain Bergarako musika eskolako irakaslea eta Debarreneko Orfeoien zuzendaria ere bada eta, Austriakoa albo batera lagata, beste hitzordu garrantzitsu batzuk izango ditu datozen hilabeteotan.



Bazkideen erakusketak zabalduko du kurtsoa Topalekuan

Ikasturte berria hasteko, Arrate Kultur Elkarteko bazkideen lanekin erakusketak egingo dute Topalekuan, irailaren 20tik urriaren 6ra bitartean. Antolatzaileek azaldu dutenez, parte hartzera animatzen diren bazkideek gehienez bi lan erakutsi ahal izango dute (bakarra, erakutsi nahi den lana oso handia izanez gero) eta entregatzeko azken eguna gaur da (Arrate Kultur Elkartearen bulegoan). Bestalde, irailaren 18an prestatuko dute erakusketak eta, bazkideek eramandako lan guztiak antolatzen lagundu nahi izanez gero, egun horretan zuzenean agertuta nahikoa izango da. Aurreratu dutenez, "erakusketaren zaintza parte hartzen dutenen artean antolatuko dugu".



Matrikulazioa zabalik AEK euskaltegian

AEK euskaltegian euskera ikasi nahi dutenentzat matrikulazioa zabalik dago. Ohikoa den bezala, maila guztiak ematen dituzte eta ikasleentzat diru-laguntzak daude. Interesa duenak irailaren 27ra arte izango du matrikula egiteko aukera eta kurtso berria urriaren 1ean hasiko da. Informazio gehiago nahiz izanez gero euskaltegian galdetu daiteke (Sostoatarren, 1), 943201379 telefonora deitu edo eibar@aek.eus helbidera idatzi (bulego ordutegia 10:00etatik 13:00era eta 16:30etik 19:00etara da astelehenetik eguenera eta 10:00etatik 13:00era barixakuetan).



Argazkigintza digitalean trebatzeko kurtsoa

Ikasturte honetan ere "Argazkigintza digitala: lehen urratsak" ikastaroa antolatu dute. Irakasleak Jose Valderrey eta Juan Antonio Palacios Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideak izango dira eta klaseak urriaren 14tik azaroaren 20ra bitartean izango dira (30 ordu izango dira guztira), Portalean, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 21:30era. Astelehenean zabalduko da matrikulazioa eta urriaren 4ra arte egongo da izena emateko aukera. Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat eta 79 eurokoa gainontzeko guztientzat. Informazio gehiagorako zein izen-emateko Pegorara jo daiteke.

Zine emanaldiak Coliseora bueltan

Udako oporretan izandako etenaldia eta gero, Coliseo antzokiko zinema emanaldiak bueltan izango dira asteburu honetatik aurrera. Orain arte bezala, pelikulak barixakutik astelehenera bitartean emango dituzte. Txartelen salmentarako leihatila, bestalde, emanaldi bakoitza hasi baino ordu bete lehenago zabalduko dute 17:00etako emanaldietarako eta ordu erdi lehenago gainontzeko emanaldietarako.

Udal Euskaltegiak 2019-2020 ikasturtea aurkeztu du

Eguazten goizean aurkeztu zuten ikasturte berria 35 urte beteko dituen Udal Euskaltegian. Azaldutakoaren arabera, ikasturte honetan ere euskera ikasi nahi dutenentzat eskaintza zabala dago: euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, autoikaskuntza, azterketetarako prestaketa (IVAP, Osakidetza, HABE) eta C1/EGAtik gorako C2 ikastaroak. Gainera, titulu ofizialak lortzeko aukera ere eskaintzen du. Sorkunde Juaristi zuzendariaren berbetan, *"bestalde, aurtan ere gurasoentzako eskolak emango dira, 'Gurasoak ere eskolara' kanpainaren barruan. Klase horiek umeen ikastetxeetan edo Portaleko geletan jaso ahal izango dira eta Euskara Sailarekin eta AEK Euskaltegiarekin lankidetzan antolatzen ditugu"*. Egun osoan, 08:00etatik 21:00etara egoten dira klaseak eta, gainera, euskaltegiak hainbat dirulaguntza eskaintzen ditu Eibarren erroldatutako en-



Euskaltegiako arduradunak Udaleko kultura eta euskera zinegotziarekin.

tzat. Matrikulazio epea zabalik dago (irailaren 25era arte) eta izena emateko Portaleko 2. solairura joan behar da. Informazio gehiagorako 943700912 te-

lefono zenbakira deitu edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.

2019-20 ikasturterako kanpainarako goiburua "Euskara-

rekin match! Egin gurekin bat" da eta, horren harira, bideo labur bat egin dute eta grabazioan Eibarko Udal Euskaltegiak ere hartu du parte. Dagoeneko ikusgai dago Youtuben, Facebooken... baita www.eibar.eus orrian ere.

35 urte eibartarrak euskalduntzen

Datorren apirilean Udal Euskaltegiak 35 urte beteko dituela eta, urteurrena gogoratzeko jarduera bereziak izango dira ikasturte osoan zehar. Lehena ikasturteari hasiera emateko urriaren 8an egingo den ekitaldia izango da: *"Arratsaldeko 19:00etan izango da, Portaleko areto nagusian, eta besteak beste Miguel de los Toyos alkatea eta Jokin Azkue HABEko zuzendari nagusia gonbidatuko ditugu. Gainera, Beatriz Egiazabal clown eta aktorearen bazarriketarekin gozatzeko aukera ere izango dugu"*.

Kezkaren dantza-eskolarako izen-ematea zabalik dago

Klub Deportiboko Kezka dantza taldeak gidatutako dantza-eskolak (6 urtetik gorakoentzat) irailaren 23an irekiko ditu ateak, Portaleko 3. solairuko dantza-gelan. Azken urteotan bezala, aurtan ere nagusiei bereziki bideratutako ikastaroak eskainiko dituzte, urriaren 1en hasita, *"plazako euskal dantza tradizionala ikasi eta dantzatzuz gozatzeko aukera zabalarekin"*. Hastapen-klaseak martitzenetan (19:00etatik 20:00etara) eta eguenetan (11:00etatik 12:30era) izango dira; jarraipen-klaseak martitzenetan (19:00etatik 20:00etara) eta eguenetan (09:30etik 11:00etara); eta sakontze-klaseak martitzenetan (10:00etatik 11:30era eta 20:00etatik 21:00etara) eta barixakuetan (17:30etik 19:00etara). Matrikula epea oraindik zabalik dago eta informazio gehiago es-



katzeko zein izena-emateko kezka@dantzan.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 943 53 04 40 telefono zenbakira deitu.



Maite Narbaiza Azkue

2. Urteurrena: 2017-IX-17

"Zure oroitzapenak biziarazten gaitu"





Folkez Blai lehiaketa ERMUAN

Hiru egun hartuko ditu, urterto moduan, Ermuko Folkez Blai lehiaketaren egitarauak. Gaur Lugoko Comando Curuxás-ek joko du 18:30ean, Bartzelonako Flowk taldeak 19:45ean eta, amaitzeko, Toledoko La Khabala Band izango da talde gonbidatua 21:00etan. Bihar, zapatua, Lurgain talde gipuzkoarrak joko du 18:30ean, Valentziako X-Fanekaes taldeak jardungo du 19:45etik aurrera eta 21:00etan A Coruñaako Xabier Diaz & Adufeiras de salitre izango da gonbidatua. Azkenik, domekan Guadalajarako Los hermanos Cubero izango da talde gonbidatua eguerdiko 13:00etan, eta A Coruñaako bi taldek joko dute arratsaldez: Lenda Ártabra 18:30ean eta Boj 19:45ean. 18:30ean.



SanloBeer garagardo jaia ELGOIBARREN

Atzo hasi eta domekara arte iraungo du Sanlo eskubaloi taldearen eskutik zaspigarren urtez antolatzen den SanloBeer garagardo jaia. Maalako parkean kokatutako karpan, jan-edanaz gainera, zuzeneko musika emanaldiek, bingoak eta dantzaldiek girotuko dute garagardo azoka hori. Gaur eta bihar Melissa And The Jacks taldeak joko du 23:00etatik aurrera eta azken egunean, domekan, paella erraldoia prestatuko dute. Gaur, bestalde, ganbak izango dira pintxo-potean; bihar, muskuluak tomatearekin.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- **Ildefonsa Cuadra Fernandez.** 94 urte. 2019-IX-5.
- **Vicente Amador Marini.** 62 urte. 2019-IX-8.
- **Florencia Ruiperez Tome.** 92 urte. 2019-IX-9.

jaiotakoak

- **Mohamed Amin Messaouidi.** 2019-IX-3.
- **Marouan Doudouh El Khamsa.** 2019-IX-4.

farmaziak

- Barixakua 13**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Zapatua 14**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Domeka 15**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 16**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 17**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguaztena 18**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguena 19**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Barixakua 20**
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

5	1	6	2	9	7	8	4	3
3	9	8	6	5	4	2	1	7
4	2	7	1	3	8	6	5	9
1	7	9	3	4	2	5	6	8
2	8	4	7	6	5	3	9	1
6	5	3	8	1	9	4	7	2
7	4	5	9	2	3	1	8	6
8	3	1	5	7	6	9	2	4
9	6	2	4	8	1	7	3	5

3		6	2					
		7		8				
	2					9	4	
2	6			5	9		3	
				6				
9		5	7			4	1	
7	8					1		
				1	7			
				4	5		2	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 13

INAUGURAZIOA

19:00. Viviane Straub-en "Bidean" marrazki erakusketa. Kokojaten-en (Calbeton, 8).

MUSIKA

22:00. Pancho Varona: "Ruta 52". 14 euro (10 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Zapatua 14

BIEN APARECIDA JAIK

11:00. Alebinen foball txapelketa. Kantabriako Etxeak antolatuta. Unben.

DISKOFESTA

17:30. "Party Man". Doan. El Corte Ingleseko 3. pisuko terrazan (euria egingo balu, ekitaldi aretoan).

IKUSKIZUNA

20:30. "Herejia", Bogoroditsie abesbatzarekin. Zuzendaria: Ion Ugarriza. Antzezleak: Ernesto Barrutia eta Izaskun Iturrioz. Abeslariak: Amaia Urzainki eta Bogoroditsie Abesbatza. 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Domeka 15

ARRATE IZENEKOEN JAIK

09:30. XXIII. urteurrena. Arratera igoera Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia.

KOFRADIXA EGUNA

10:30. Simon Aldazabal XXIV. Antxixiketaldia. Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
11:00. Meza Nagusia, bertsolariekin. Ondoren, prozesioa, Usartza Txistulari Taldeak lagunduta.
12:00. Paella lehiaketa.
14:00. Paella lehiaketaren sari banaketa.
17:30. Idi probak. Arraten.



BIEN APARECIDA JAIK

12:00. Meza, San Andres elizan.
14:00. Piskolabisa (Jardiñetako tabernan). Kantabriako Etxeak antolatuta.

Astelehena 16

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

10:00/11:30 eta 18:00/19:30. "Nordic Walking Bataioa" ikastaroa (1. saioa), Udal Kirol Patronatuak antolatuta. Ezinbestekoa da aurretik izena ematea. Unbeko kiroldegian.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatu eta Pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.



Martitzena 17

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

18:30. "Islas para viajar en bici" ikus-entzunezko hitzaldia. Portaleko areto nagusian.

Eguaztena 18

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

10:00/11:30 eta 18:00/19:30. "Nordic Walking Bataioa" ikastaroa (1. saioa), Udal Kirol Patronatuak antolatuta. Ezinbestekoa da aurretik izena ematea. Unbeko kiroldegian.

AURKEZPENA

19:00. Berbetan mintzapraktika eta Ongi Etorri harrera eta elkarbizitzarako programak aurkezteko ekitaldia. Portaleko areto nagusian.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entseua. San Andres elizako lokalean.

Eguena 19

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

10:00. "Mugikortasun Jasangarriaren Martxa". UNI Eibar Ermua BHIIn hasi eta, Eibarko kaleak zeharkatu ondoren, Untzagan amaituko da.

Erakusketak

Irailaren 28ra arte:

– **VIVIANE STRAUB-EN "BIDEAN" MARRAZKIAK (Kokojaten)**



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IKER, atzo 7 urte bete zenuduzen-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Koldoren partez.



Zorionak, LOREA, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, NAIA, gure txikitxak irailaren 11n urtetxua bete zeban-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JOKIN, Arrate egunian 8 urte bete zenuduzen-eta. Etxekuen eta laguneren partez.



Ongi etorri, JULENI!, uztaillaren 16tik gure artian zagoz-eta. Patxo haundi bat zure aitta eta amaren partez. Pillua maite zaittugu.



3,2,1... iritsi da zure eguna!! Bixar 5 urte haundi!! Zorionak etxekuen eta, bereziki zure anaixa Urkoren partez!!



Zorionak, bikote! EKAIN, martitzenian 5 urte bete zenudua ospatu gendualako; eta munduko AITXITXA onenari, gaur zure eguna dalako.



Ze pozik zagozien titulu berri honekin!!! Zorionak, AITXITXA eta AMAMA!!! Musu haundi bat Julenen partez.



Aupa, INTZA! Datorren martitzenian 12 urte! Jaso milla musu etxekuen aldetik eta segi hain jator!



14 urte beteko dozuz eguaztenian, MALEN! Musu mordoxka bat bialtzen detsuegu etxekuok. Ez galdu sekula irribarre hori!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
14an: 17:00, 22:30 (2 aretoa)
15ean: 17:00, 20:00
16an: 20:30

"Vivir dos veces"

Zuzendaria: Marta Ripoll



(2 ARETOAN)
14an: 19:45 (1 aretoa), **22:30** (1)
15ean: 17:00, 20:00
16an: 20:30

"Quien a hierro mata"

Zuzendaria: Francisco Plaza



(2 ARETOAN)
14an: 17:00, 19:45
15ean: 17:00 (antzokia)

"El rey león"

Zuzendaria: John Favreau



(ANTZOKIAN)
14an: 22:30
15ean: 20:00
16an: 20:30

"It. Capítulo 2"

Zuzendaria: Andres Muschetti



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere 4 **ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukalde eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-521840.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 681-013032. Carla.
- Etxe zoragarria alokagai Maria Cristina hotelaren parean Donostiako zinemaldiaren aste osorako. Baita bigarren hamabostaldirako ere. Tel. 689-232882.
- Pisu bifamiliarra alokagai Txonta 45ean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Guztiiz jantzita. Deitu 20:00etatik aurrera. Tel. 943-248206.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Opel Corsa 1400, 90 cv, Eco (GLP) salgai. 2017koa. 7.000 kilometrorra heldu gabe. 9.990 euro. Tel. 658-714437.
- Karabana finkoa salgai Mutrikun (Santa Elena kanpinean). Komuna, dutxa, abanize eta 2 oherekin (1'50 eta 0'90). 5.500 euro. Tel. 639-629346 eta 676-102578.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-768803.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-010318.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak ospitalean zaintzeko. Tel. 617-896989.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-202358. Elvin.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-303155.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-133720. Indira.
- Erizain-laguntzaile titulua duen mutila eskaintzen da lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 633-496455.
- Neska eskaintzen da soziedadek garbitzeko eta gauzez lan egiteko. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da arratsaldez etxeak garbitzeko eta obretako azken lanak egiteko. Tel. 638-421827.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gauzez ere. Erreferentziak. Tel. 632-098382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-487252.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-850826.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 612-201719.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-537430.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-700803. Celia.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-714388.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez (16:00-18:00) umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-714388.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arreta sozio-sanitario tituluekin. Tel. 631-502177.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 15 urteko esperientzia. Tel. 667-060292. Sandra.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 664-819748 eta 638-249775. Humberto.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. 12:00etatik 17:00etara. Tel. 603-874953.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauzez ere. Tel. 631-980531.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-455854.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (Eusko Jaurilaritzaren tituluekin). 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-012735.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-034495.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-906590.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 681-013032.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-800266. Denia.
- Neska eskaintzen da abuztuan nagusiak zaintzeko. Tel. 654-154301.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 653-421151.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta eraikuntzan edo pintore jarduteko. Tel. 653-421159.

- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko. Magisteritza tituluekin. Tel. 688-625803.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Sukaldari ona. Tel. 612-521729.

4.2. Langile bila

- Dekoratzaileria behar da altzari-denda batean. Esperientziarekin. Tel. 649-781942.
- Kamarera/o behar da asteburuetan Eibarren lan egiteko. Curriculum-a bidali: tre@euskalnet.net
- Astebururako kamarera/o eta garbitzailea behar dira jatetxe batean. Tel. 943-121262.
- Sukaldaria behar da taberna batean. Tel. 665-308025.
- Neska euskalduna behar da umea zaintzeko, arratsaldez 2 ordu inguru, astelehenetik barixakura. Erreferentziak eta esperientzia baloratuko dira. Tel. 676-105492.
- Neska/emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Jardunaldi erdia (4 ordu inguru), astelehenetik barixakura. Erreferentziak eta esperientzia baloratuko dira. Tel. 676-105492.
- Kamarera/o eta sukalde-laguntzailea behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 659-539861.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Irakaslea behar da euskarazko C1 azterketaren idazlana prestatzeko. Tel. 685-752008.
- Euskera irakaslea behar da DBH 2. mailako ume batenzat eta 8 urteko beste batenzat. Astean bitan. Tel. 653-735874.
- DBH eta Batxilergo klaseak ematen dira. 4 lagunez osatutako taldeak gehienez. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- DBH 3ko Ekhi proiektuko iazko liburua erosiko nituzke. Tel. 679-323452. Cristina.
- Batxilergoko 1. mailako liburua salgai. D ereduak. Prezio onean. Tel. 605-711422.
- Gurgildun aukila salgai, motorrarekin. Behin erabilitako euritarako zakua opari. Tel. 615-781238.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Oarso Car Arrasateko erakusketa berriaren INAUGURAZIOA

%40rainoko DESKONTUAK
Km 0 Hyundai Gama guztian



OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
www.oarsocar.com

**GRUPO
EASO
MOTOR**

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

ARRASATE
San Andres, 6 (Mugarri eraikina)
943 79 70 06

HYUNDAI

II. ARGAZKI LEHIAKETA



1
SOSOLA baserrian
gaua bi lagunentzat



2
Bidezko merkataritzako
produktu saskia



3
Bertako zein ekologiko
diren produktuen saskia

Sari banaketa
urriaren 19ko

**KONTSUMO ARDURATSUAREN
IV. AZOKAN** Eibarren.

Lehiaketaren oinarriak



Finantzatzailea



Antolatzailea



GAIA: PLASTIKORIK GABE, AURRERA!

Bidali argazkiak **urriaren 4a** baino lehen egoaizia@egoaizia.org



Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



bista eder
clinica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es